



ARGIA

KOLDO IZAGIRRE:
"POLITIKARIEK EZ
DUTE BIDE-ORRIK
EUSKARARENTZAT"

HAIZEA NÚÑEZ:
"GURE HERRIAREN
ZAURIAK ZEHARKATZEN
DU NIRE FAMILIA"

YOUTUBERRAK:
GUTXIETSI EZIN DEN
MASA FENOMENOA

LARRUN:
KULTUR ANIZTASUNA
ETA EMAKUMEEN
ESKUBIDEAK

**MADDALEN IRIARTE
(EH BILDU)**

**"ARRISKATZEKO
ORDUA DA"**



Alberdi EUSKAL ARTISAUTZA

MAKILA



Opari berezietarako • pertsonalizatuak • prezio aukera desberdinak

**Makila
tradizionala**
Gaztainondo/Letoi



**Makila
tradizionala**
Mizpirondo/Letoi



**Makila
tradizionala**
Mizpirondo/Alpaka



**Makila
tradizionala**
Mizpirondo/Zilar fina



**Ohorezko
Makila**
Mizpirondo/Alpaka



**Ohorezko
Makila**
Mizpirondo/Zilar fina



ESKAERAK: www.argia.eus/denda/makilak | denda@argia.eus

Zirkuitu Ibilbidea, 2 - Industrialdea, 15 | 20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa) | 943 371 545

PANORAMA

- 4 Asteko argazkia
- 6-9 Albisteak
- 7 Hor dena gailu
- 10 Net Hurbil: Migratzaile
Desagertuen Amak Mexiko
eta Guatemalan

IRITZIAK

- 17 Estitxu Garai Artetxe
- 18 Inma Errea
- 19 Mikel Basabe
Oihana Etxebarrieta



"Franco hil zuten egunak, eta Basques' Harbourreko beste kontu asko"
liburua argitaratu du azaroan Koldo Izagirrek. (ARGAZKIA: ZALDI ERO)

- 37 DENBORAREN MAKINA
- 38 BIZI BARATZEA
- 40 ARGIA KOMUNITATEA
- 48 KULTUR KRITIKA
- 50 ZUZENKO EMANALDIA
- 51 DENBORA-PASAK
- 52 ARGI-KONTRA:
AITANA OLTRA
- 54 BERANDUEGI

AZALEKO ARGAZKIA: DANI BLANCO

SAKONEAN

- 12 | Haizea Núñez: "Epe luzerako estrategiak behar ditugu herri mugimenduetan" / Danele Sarriugarte Mochales
- 20 | Youtuberrak: Ez dira ume-jolasetan ari / Jon Torner Zabala
- 25 | Maddalen Iriarte: "Ideologiaz harago, talde lanean sinesten dut" / Mikel Asurmendi
- 30 | Anti hiria edo bizitza, hirigintza hausnarketak / Iván Miró
- 32 | Zorraren auditoretza: Kontrol publikoa eta herritarren ahalduntzea Madrilan / Sara Arruabarrena Azkarate
- 34 | Agurainen 75 ordu euskaraz, euskaldunak aktibatzen, erdaldunak egokitzen / Onintza Irureta Azkune
- 36 | Ibon Agudo, buruko isuria izatetik clown aritzera / Ainhoa Mariezkurrena Etxabe
- 42 | Koldo Izagirre: "Uste dut fenomeno orokortua dela goxo idaztea" / Miel A. Elustondo
- 46 | Arte iruzkina: Rafael Ruiz Balerdi / Xabier Gantzarain

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA HARPIDEDUNEN ETA LAGUNTZAILEEN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOI.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



DOAN ETA LIBRE
ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU,
GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Ametzagañña Taldeko parteidea.
Lehendakaria: Bego Zuza. **Zuzendaria:** Estitxu Eizagirre.
Erredakzioa: Ainhoa Ortega, Axier Lopez, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Iosu Alberdi, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Mikel Asurmendi, Mikel García, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Unai Brea, Urko Apaolaza, Xabier Letona.
Diseinua: Sergio Labrador. **Argazkilaria:** Dani Blanco.
Produktzioa: Antza S.A.L.
Harpidetza: Iraitx Agirre.
Salmenta: Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.
Idazkaritza: Aloña Sorluze, Bego Zuza.
Administrazioa: Jone Arzallus, Mari Karmen Lioarte, Marijo Aiertza.
Web garapena: Asier Iturralde.

HELBIDEAK:

Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545.
Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163.
Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580.
Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285.

POSTA ELEKTRONIKOAK:

Komertziala: komertzial@argia.eus. Harpidetza: harpide@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus.
Interneten: www.argia.eus.
Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E.
Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L.

HARPIDETZA:

Euskal Herria eta Espainiako estatua: astero, 12 € hilean; hamabostero, 6,5 € hilean; hilean behin, 3,5 € hilean.
Beste atzerriak: 15 € hilean. Airez: 24 € hilean.



PANORAMA

Berxwedana jiyane

Erresistentzia bizitza da diote kurdueraz. Herri kurduaren erresistentzia eta Turkiako Gobernuaren azken oldarraldia salatu dute azken egunetan mundu osoan milaka lagunek. Bilbon ere hala egin zuten ehunka lagunek larunbatean.

Errefuxiatuen krisiaren aferan mugalari eta errepresore lanak egitearen truke, txeki zuria eman dio Europar Batasunak Turkiari, eta Erdoganek ondo baliatu du aukera kurduen aurkako errepresioa orokortzeko. Iazko uztailetik 8.000 kurdu baino gehiago atxilotu dituzte, horietatik 2.000 inguruk giltzapean jarraitzen dute. Azken 10 egunetan, HDP alderdi politiko kurduko 400 kide baino gehiago eta Kurdistango Eskualdeetako Alderdi Demokratiko 900 lagun inguru atxilotu dituzte, eta Gobernuaren aldeko eskuineko talde ultranazionalisten laguntzaz, dozenaka kurdu zauritu edota hil dituzte.

Besteen menpe bizitzeari "nahikoa da" esan diote Mendebaldeko kurduak eta, Rojavan –Siriaren menpeko Kurdistan– erakutsi duten bezala Daeshen aurkako borrokan, indarrak metatzeari ekin diote. Turkiako eta Kurdistango ezkerreko 10 taldek –PKK eta Turkiako alderdi komunista barne– Herri Batuen Mugimendu Iraultzailea fronte bateratuan aurre egiten diote "ingurumena suntsitzen, gazteak eta emakumeak jazartzen eta esklabotzaren eskutik langile klasea esplotatzen ari den Erdoganen Gobernu hiltzaileari".

Argazkia: Irantzu Pastor - Testua: Axier Lopez



Luhusoko atxilotetek erreakzio ugari sortu dute sarean

t “Barne ministroentzat ETAre aurkako kolpea, gizarte-eragileentzat bakearen aurkako kolpea denean”
@inaeiza

t “Eskerrik asko bihotzez bost atxilotuei, bake prozesua norberaren askatasunaren aurretik jartzeagatik eta estatuen immobilismoaren aurka borrokatzeagatik”
@erreharria

t “Oraingoan ere Iparraldetik irakasgaia! Noiz erakutsiko dute EAE eta Nafarroako agintariak antzeko jarrera? #Bakearenartisauek askatu!” @ttipilekitto

t “Neure buruari galdetzen diot ea non egongo ote zen Kolonbiako bake prozesua, Santosek armak suntsitu nahi zituztenak atxilotu izan balitu”
@PBerhouet



DSS2016

Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa abian da

Iosu Alberdi Atxurra
@atxurraa

Europako hizkuntza gutxituetako hiztunen eskubideak bermatzeko sortu da Donostiako Protokoloa. Kursaal Jauregian egin dute aurkezpena. Kontseiluak eta Donostia Fundazioak sustatutako proiektuak 185 neurri ditu bere baitan eta Europako 50 bat hizkuntza komunitateko ehundik gora eragilek sinatu dute.

“Parte-hartzea izan da protokolo honen arrakastaren giltzarria, txikiak izan arren, guztiak batuta, bagarela nor erakutsi dugu”, azaldu du Kontseiluko idazkari nagusi Paul Bilbaok. Bere esanetan, European hizkuntza eskubideak bermatzeko tresna eraginkor bat dagoela da garrantzitsuena, orain Donostian ere abian jarri dutena.

Bi urteko lanaren ondorioz sortu da protokoloa. Donostia 2016ko kultur programaren zuzendari Xabi Payak Europako Kultur Hiriburuen historian Donostiakoa “ondo” gogoratuko dela azaldu du, Europako identitateari hizkuntza aniztasunaren kudeaketa jasangarrian egindako ekarpenari esker. Protokoloa egiteko eragileek izaniko konpromisoa “eskertu” eta neurriak betetzeko konpromisoa ere eskatu du. Edwin Bensonen heriotza, mandan hizkuntzaren azken hiztunarena, izan du hizpide konpromisoaren beharra azpimarratzeko.

Europako sei erakundetako kideek osatutako Talde Antolatzaileak gidatu du protokoloaren sorrera eta bertako ordezkariak oroigarri bana jaso dute.

“Gipuzkoan 232 kilo errefus sortzen dira biztanleko. Ze solidaritate mota da hau?”

GOIERRI BIRZIRIK PLATAFORMA

Mutiloan GHK-k ireki nahi duen zaborteziaren aurka manifestazio jendetsua egin dute Ormaiztegin. Goierri BirZirik-ek gogorarazi du herri horietan hilean 5,8 kilo errefus baizik ez dituela sortzen biztanle bakoitzak: “Ez da legitimoa ahalegin gutxiago egiten dutenek zabor gehiago sortu eta guk sufritu beharra”. Plataformaren esanetan birziklapena da alternatiba bakarra: “Zaborraren arazoa konpon daiteke herritarrei baliabide gehiago eskainiz”. 2016-12-15



HIZKUNTZEN
HILTzea ?

SUBIZIDIO
Kasu ARGIAK





ETAren armagabetzea gizarte zibilaren esku

TESTUA ETA ARGAZKIA:

Lander Arbelaiz Mixelena

@larbelaiz

“Bai, armagabetzearen prozesu hori bururaino eramango dugu. Atzotik badakigu gure eskuetan dagoela. Guri doakigu behar diren bermeak sortzea eta armagabetze horrekin gatazka honek sortu dituen ondorio guztiei aterabidea ematea”, adierazi du larunbatean Bake Bidea mugimenduko presidente Anaiz Funosasek Baionan egindako manifestazioan.

4.000 lagun bildu ditu “bakearen alde, bakearen artisauak askatu!” lelopean egindako manifestazioak. Hauek dira atxilotuak: Jean Noel Etxeberri Txetx, Mixel Berhokoirigoin, Beatrice Molle-Haran, Mixel Bergouignan eta Stephane Etxegarai Etxe.

Astelehen goizean eraman dituzte Parisera eta asteartean igaro dira epailearen aurretik. Astelehenean Baionan deitu dituzte Euskal Herri osoko sindikatu, eragile sozial eta hautetsiak gaiari jarraipena emateko. Donibane Garazin eta Luhuson elkarretaratzeak egin dituzte, sarean milaka sinadura bildu dituzte atxilotuen askatasuna eskatuz eta eragile ugari eman dute atxikimendua, tartean Frantziako Greenpeace-k, José

Bové eurodiputatu eta sindikalistak eta Kortsikako presidente Gilles Simeonik.

Gizarte zibilaren ekimena

Atxilotuak ETAren eta gizarte zibilaren arteko armagabetze operazio batean parte hartzen ari ziren atxilotu zituzten unean. Berhokoirigoinek, Tubianak eta Txetx-ek egin zioten proposamena erakunde armatuari eta udazkenean hainbat gutun trukatu ostean, ETAk onartu egin zuen gizarte zibilak armagabetzean parte hartzeko proposamena.

Espainiako eta Frantziako agintariak adierazitakoaren arabera, ETAk armak desegiteko “propaganda operazioa desegin dute atxilotuta hauekin”. Armak frogatzea erabiltzeko aukera oztopatzea leporatzen diete atxilotutakoek eta baita armetatik frogak ezabatzeko saioa egin izana ere.

Michel Tubiana Frantziako Giza Eskubideen Ligako ohorezko lehendakaria ere Luhuson atxilotutakoekin egotekoa zen armen suntsitze operazioan. “Gobernuak abisatuko genituen armen entrega egingen genuela. Prokuradoreari aukera emanen genion hemendik aste batzuetara arma horiek deuseztatuta aurkitzeko”, adierazi du Tubianak Berria egunkariari emandako elkarrizketan.

Gaiak soka luzea ekarriko du.

EKONOMIAREN TALAIAN

Nazioarteko Diru Funtsaren eraso



Juan Mari Arregi

Nazioarteko Diru Funtsak (NDF) berriaz erakutsi du zeinen zerbitzura dagoen: Kapitala, banku handiak eta multinazionalak. Hala ikus daiteke Espainiako Estatuari buruz kalera-tutako urteroko txostenean, beti bezala eraso antisoziala proposatzen baitu bertan. Zergapekoaren kontra egin du beste behin, 5.500 milioi euroko murrizketak inposatuz, hau da, BPGren %0,5. Horretarako, BEZa handitzea eskatu du, erregaien gaineko zerga bereziak ere bai, eta hezkuntzan eta osasungintzan gastuak errebisatu behar direla dio, baita lan malgutasun gehiago eduki ere. Hori guztia, “defizit publikoa eta zorra pixkanaka jaitea” lortzeko.

NDFk ez du ezer esaten gastu militarra errebisatu eta murrizteaz, nahiz eta Espainiako Estatuan 2017an 6.000 milioi eurotik 8.000 milioitara igaro nahi den aurrekontua alor horretan, %33ko igoera hain zuzen. NDFri berdin zaio kiebran dauden autopistak nazionalizatzea Estatuak –egiaz bere lagunak salbatzeko delako–, horrek 6.000 milioi euroko kostua izango duen arren, aurretik bankuak erreskatatzea 40.000 milioi euro kosta zitzaigun bezala.

Tristeia eta tamalgarria da NDFren eraso antisozial horren aurrean ez egotea herritarren erantzun irmorik. Horren arrazoia eta erantzukizunaren pisua ezker politiko, sozial eta sindikalaren egoera larrian jarri behar dugu. Sozialdemokraziak menperaturik dago, bananduta, desagertuta, eta okerrago dena, Kapitalaren aurrean alternatiba barik. Bidea libre utzi dute jendearen bizkarretik neurri antisozialak inposatzeko. Beharrezkoa eta premiazkoa da ezker horrek hausnarketa sakona egitea eta jokabide erradikal eta solidarioagoa hartzea. Gutxienez NDF eta Kapitala geldiarazteko.



ELPERIODICO.COM

Espainiako erregearen argazkiak sutan

KATALUNIA. Kataluniako Diada eguneko protesta batengatik auzipetutako bost lagunak atxilotu ditu poliziak. Felipe VI.aren argazkiak erretzeagatik zeuden Audientzia Nazionalean deklaratzera deituak, baina ez ziren aurkeztu. Atxilotetak salatzeke, CUPEk elkarretaratzeak egin ditu Kataluniako hainbat herritan. Protesta horietan Espainiako Estatuko erregearen argazkiak eta Konstituzioaren orrialdeak apurtu eta erre dituzte antolakundeko diputatu eta manifestariek. Bestalde, Carme Forcadell Parlamenteko presidentea eta Parlamenteko Mahaiko gainerako lau diputatu subiranistak desgaitu nahi ditu Espainiako Gobernuak, desobedientzia eta prebrikazioa egotzita.

Alonso eta Maroto absolbitu dituzte PP inguruko botoek

Argia

Alfonso Alonso, Javier Maroto eta PPren udal gobernukoak izandako beste zenbait kideren kontrako epaiari jarritako helegitea errebisatu eta absolutzioa ebatzi du Espainiako Kontu Auzitegiak. Aurretik auzitegi bereko beste epaimahai batek 393.862 euroko isuna jarri zien, Gasteizko San Anton San Anton kaleko ustezko irregulartasun eta ustelkeria kasuagatik.

PPren eskua

Epaimahaiak izendapen politikoa du eta PPK proposatutako bi kidek (tartean PPKo Justizia ministro ohia) eta PSOEn beste batek osatzen dute. Popularren inguruko botoei esker sinatu dute absolutzioa.

"Hau ez da amaitu"

Adi! elkarteak ohartarazi du prozesuak bide penala duela oraindik aurretik, kontu auzibidea amaitu ez den arren. Elkarrekin Gasteizko Udalari eskatu dio errekurritu dezala auzitegiaren azken erabakia.

Negoio biribila

2007an sinatu zuen Gonzalo Anton enpresariak kontratua Gasteizko Udalarekin, lokal batzuk prezio oso altuan eta 20 urterako alokatzeko. Sinatutakoa betez gero 7,6 milioi euroko etekina aterako luke enpresariak.

TORTURA



1.000

tortura salaketatik gora jaso ditu Israelgo Gobernuak 2001etik, eta bakar bat ere ez du ikertu.

%27

Gurutze Gorriak hainbat estatutan eginiko inkestaren arabera, torturaren onarpenak gora egin du: galdetuen %66k tortura "desegokia" dela erantzun zuten, %27k berriz, "gerraren zati" dela.



DESOBEDIENTZIARI ISUNA

"Desobedientzia larria" leporatuta, 1.080 euro ordaindu beharko du Gasteizko herri harresian parte hartzeagatik atxilotutako zortzi gazteetako bakoitzak. Zigorrek eta epaiketaren gastuak ordaintzeko behar dituzten 16.000 euroak lortzeko kanpaina abiatu dute.



ZEZENKETARIK EZ GASTEIZKO JALETAN

2017ko Gasteizko Andre Maria Zuriaren jaietan ez da zezenkariarik izango. Udalak baieztatu du, zezenketak eta bigantxak kudeatzeko lehiaketa hutsik geratu ostean, ez baita enpresarik aurkeztu.



HALA BEDIREN LIZENTZIA AIRAAN

2011n Eusko Jaurilaritzak abiatu zuen irriti lizentzien lehiaketak hamaika buruhauste eragin ditu. Hala Bedi irriti arabarrak salatu berri du lizentziarik ez diotela emango jakinarazi diola Jaurilaritzak, nahiz eta aurre esleipenetan bat egokitu zitzairen.

Migratzaile Desagertuen Amak haien bila dabilta Guatemalaatik Mexikora



Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

Abenduaren 3an amaitu zen Chiapasko (Mexiko) Tapachulasen Erdialdeko Amerikako Migratzaile Desagertuen Amen 12. karabana, 18 egunetan 3.800 kilometro korritu autobusez eta 30 hiritan seme-alaba desagertuen aztarnen bila ibili ostean. Azken 10 urteotan 70.000 baino gehiago dira AEBetara iritsi nahian galdutako gizon eta emakumeak, asko nekeak lehertuta edo *coyoteek* abandonaturik hilik.



2016ko Karabanak lortu du 41 gurasoe-tatik –gehienak amak– lauk galdutako seme edo alabarekin kontaktua berreskuratzea, baita 37 urtez elkarren berri izan ez duten bi ahizpak ere. Denetara hamabi urteotan 269 *reencuentro* lortu ditu MMM Movimiento Migrante Mesoamericano elkarteak, gurasoen karabanaren aitzakiatan antolatzen den elkartasunezko mugimenduari esker.

MMM saiatzzen da desagertutako migratzaileen bilaketan, ugaritu egin baitira Honduras, Nikaragua, Salvador eta Guatemalaatik pasata AEBetara heldu nahian Mexikon barna ibilaldi gero eta arriskutsuagoan abiatutakoen artean. Karabanako kideek beren senideen arrastoak bilatu dituzte ostatu, kantina, gobernuaren bulego, espetxe, komertzio eta herrietako plazetan, Mexikoko 11 estatutan. Aldi berean, Marta Sánchez Soler buru duen elkarteak bermatu die hedabide nagusietara iristea gehiegitan ahazten den arazo larriaren oihartzuna.

Karabanak aurtan ukitu ditu lehenbizikoz migrazio klandestinoak gero eta gehiago erabiltzen dituen kostaldeko herriak, Oaxaca eta Chiapasoko itsas hegiak, Salina Cruz, Puerto Madero, Barra San José... Juchitánen geldialdia egin dute lehorreko arrisku eta bortizkeriei izkin egin eta AEBetaraino itsasoz iritsi nahian itota hil diren migratzaile identifikatu gabeen hobi komunean.

Barra San Joséko hondartzan agertu ziren itota joan den uztailen hiru haur migratzaile. Bertan ospatu zuen karaba-

nak Berta Cáceres lider aborigen honduratar asasinatu berriaren oroitzapena ere, agintariei eskatuz haren heriotza benetan ikertua izan dadila.

MMMk amaierako agirian salatu duenez, “hasi Erdialdeko Amerikako herrialdeetatik eta Mexikon barrena AEBetaraino, denetan azaldu zaigu nabarmen ugaritu direla bortizkeriak eta giza eskubideen bortxaketak Enrique Peña Nieto lehendakariak 2014an *Plan Frontera Sur* ezarri zuenetik, Mexikotik iristen zaion etorkin jariora nola edo hala butxatu nahian AEBek sostengatu eta finantzaturik.”

Frontera Sur planak gogortu egin ditu kontrol, zainketa, hesitze eta militarizazioa, migratzaileak behartuz bide neke-tsuago eta arriskutsuagoetatik saiatzera. Horietan etorkin familiak harrapakin errazak dira gaizkile, mafia eta estatuen agente ustelentzako. Azkenean, etxean utzitako bortizkeria eta goseari ihes egin ez lan eta bizimodu bila esku hutsik datozen jendeen segurtasuna bermatzeko ordez, Estatuak horiek kondenatzen ditu lapurreta, estortsioa, sexu bortxaketa, gizaki trafikoa eta esklabotasuna nagusi diren infernura.

“*Buscamos vida en caminos de muerte*” goiburua zeraman 12. karabanak Veracruzeko Cordoban jaso zuen polizia federal mexikarraren atal zientifikoaren bisita, beren senideen arrastoak hobeto bilatzearren DNA frogak egitea eskainiz. 41 gurasoetatik 18k onartu zuten testa egitea, gainerakoak mesfidatzen dire-

lako agenteen benetako gogoaz. Odola eman zutenetako batek, Ana Zelayak, esan zion *Desinformémonos* hedabideko kazetariari: “Entzuten dugun bakoitzean ‘polizia federala’, alergia ateratzen zaigu. Tamalez galdu baitugu haiekiko konfiantza guztia. Baina zer egin nezake. Ez dut nahi berriro orratzez zula nazaten, baina asto honen gainera igo garenez, zamalkatu egin beharko dugu”.

Kazetariak ez die agenteei lanerako amorrazio handirik antzeman: “Veracruzeko fiskaltza nagusiaren ordezkariak, larunbat honetan lana egitea egokitu zaion burokratak, kazetariok lekuko izatea eragotzi digutenak ‘frogak ez kutsatzeko’ aitzakiarekin, zikinez betetako areto batean...”. Gainerako gobernadore, ordezkari, alkate eta beste agintariek ere “arazoa bideratzeko konpromisoa hartuta daukagu” agindu diete behin eta berriro dagoeneko batere sinesten ez dieten gurasoei.

Interes-amaraun ilegal oso bat

2011tik %330 ugaritu dira klandestino ki datozen etorkinen atxilotzeak Mexikon. Arazoa da poliziaren kontrolaren jomuga ez dela hainbeste trafiko ilegalen ari diren gaizkileak harrapatzea, legez kanpo dabilta familia txiroak baizik.

Zenbait erakunde eta hedabidek azaldu dute azken aldian poliziaren operazioetan parte hartzen dutela beste hainbat interesdunek ere, eskualde horietako guarda pribatu eta taxizaleek,



'El Comunista' hedabidearen argazkian, Migratzaile Desagertuen Amen 12. karabanako kideetako batzuk Puebla estatuko herri batera iritsita herritarren ongi-etorri harreran, azaroaren amaieran. AEBetarako ezkutuko bideetan galdutako migratzaileen 41 guraso, gehienak amak, arrasto bila ibili dira Guatemala eta Mexiko arteko mugatik eta gero Mexikon barrena. Gaur AEBetan paperik gabe bizi diren ia 12 milioi herritarrek bidean galdurik utzitako 70.000 jendeen tragedia azaleratu dute.

autobus konpainiek eta txoferrek, tren-bideetako funtzionarioek... horrela gizenduz migrazioaren inguruan puztutako industria kriminala.

Joan den azaroan Guatemala-Mexiko mugako Giza Eskubideen Nazioarteko Behatokiak bildu ditu eskualde horietan ari diren elkertasunezko talde eta erakundeen esperientziak. Ikerlan batean aipatu ditu 600 lekukotasun, emakumeen, iheslarien eta migratzaileen kontra erabilitako lapurreta eta bortizkeriak kontatuz.

Mugako baserrietan bizi diren mam, quiché, q'anjobal, kakchiquel, tseltal, tsotsil, tojolabal, zoque eta chol etnietako hainbat jendeak kontatu dizkiete kasuok elkarriketetan. Giza uholdeak berak eta hori kudeatzen duten mafiek nahasten baitituzte pasabideko herrietan bizi direnak ere, lehendik dauzkaten

arazo handiak –nekazaritza tradizionalaren hondoratzea, meatzaritza eta energia konpainiek eragindako lur lapurreta eta kutsadura...– are larriagotuz.

Hala eta guztiz ere, iheslariok bidean aurkitzen dituzten herritar txirook dira agintariak ez bezala laguntzen dietenak, askok modu inprobisatuan, batzuek ahal duten moduan antolaturik. Fama-tua egin da Veracruz estatuko Guadalupeko *Las Patronas* emakume taldea, 1995tik gaurdaino herri hura *La Bestia* merkantzia trenean igota zeharkatzen duten jendeei jan-edana ematen saiatzen dena. Egunero 300 otordu inguru eta urez betetako botilak botatzen dizkiete gelditu gabe pasatzen diren bagoiak gainean doazen iheslariak.

MMM elkarteak honela laburbiltzen du Erdialdeko Amerika eta Mexiko osoa desestabilizatu dituen trafiko ile-

galaren mamia: “Ondo dakigu zein negozio handia suertatu den azken bost hamarkada hauetan beren jaioterrietatik kanporatutako eskulan esklaboaren salmenta adostua, hauxe dela trafikoa sustatzen duten herrialdeetako kapital handiaren enpresen benetako balioaren eta aberastasunaren iturria. Aldi berean, jendeok kanporatzen dituzten gobernu titere inkapaz eta traïdoreei trukean uzten dieten atzerrira joandakoen *remesak* [familiei bidaltzen dizkieten hileroko diruak] jasotzearen kontsolagarria. Horra Merkataritza Libreko Itunak eragindako politika ekonomikoek bi herrialdeei lagatzen dizkieten ondorioak”.

Ez dirudi Donald Trumpek, emigratioaz agindu dituen politikekin, asko baretu behar duenik Erdialdeko Amerikako giza-kontrabandoaren infernua. ■



zuri begira



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Haizea Núñez, abokatua

«Epe luzerako estrategiak behar ditugu herri mugimenduetan, beti erantzuten ez aritzeko»

Euskal Herrian jaio, Madrilen hazi, eta 23 urterekin itzuli zen Donostiara Haizea Núñez. Zuzenbidea ikasten hasi zenerako, bazekien boterearen arma estrategikoa zela hura, eta ez guztiok berdin epaitzen gaituen justizia itsuaren eremua. Hala ere, abokatu-lanetan aritu da azken bost urtean eta babes juridikoa eskaini die hainbat mugimendutako aktibistei.



Danele Sarriugarte Mochales

@daneleSM

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Noiz etorri zinen Euskal Herrira bizitzera? 2010ean. Ni hemen jaio nintzen, baina txikia nintzela Madriler a joan ginen, aita han lortu zuelako lana. Gurasoak donostiarrak dira biak eta aiton-amonak hemen bizi ziren. 2009ko uztailan aitona hil zitzaigun, eta aita seme bakarra denez, bada udan hona etorri nintzen amonarekin dolua egitera. Erabakita neukan jada Madrildik alde egin behar nuela, oso dinamika azkarrak zeudelako bai herri mugimenduetan bai unibertsitatean. Gero, gainera, zenbait eraikin okupatu bortizki hustu zituzten, Carlos Palomino gaztea hil zuten, gertuko batzuk modu gogorrean atxilotu... Donostiara itzultzea erabaki nuen, beti izan nuelako sentipen hori, euskaldunak ginel, nahiz eta nolabait madrildarrak ere izan.

Iristear zen M15 mugimendua. Zer giro zegoen hirian?

Aurreko urteetan, hain justu, etxebizitzaren aldeko eserialdi publiko eta masiboak egin ziren eta Madrilgo auzo gehienetan izugarri zabaltzen ziren zentro sozial okupatuak eta autogestioaren kultura.

Zuzenbidea ikasten ari zinen zu. Zer ikuspegi zeneukan zuzenbideari buruz, ikasketak hasi aurretik?

Batxilergoa amaitu nuenean nire asmoa zen filosofia edo historia ikastea baina gurasoek esan zidaten horrek ez zuela ezertarako balio. Bazegoen lizentziatura bikoitz bat, zientzia politikoak eta zuzenbidea. Bigarren urtean erabaki nuen zientzia politikoak uztea eta zuzenbidearekin jarraitzea, batetik ikasketak amaitu nahi nituelako, eta bestetik, ikusten nuelako horretan trebatzea baliagarria izan zitekeela batez ere herri mugimenduen ikuspegitik.

Baina banekien boterearen arma estrategikoa zela. Banekien etsaiaren tresna zela, gu zapaltzeko.

Eta ikasketak amaitu eta abokatu jardun ondoren, zer ikuspegi daukazu zuzenbideaz?

Orain badakit zuzenbidea aldatzeko tresnak ere baditugula, eta zuzenbideak egiten gaituen heinean horretan eragin dezakegula. Bestalde, orain badakit klasean ikasten duguna ez dela gero epaitegietan gertatzen. Hala ere, egia da

zuzenbidearen teoriarik behin aipatu zigutela zuzenbidearen barruko korrante bat: zuzenbidearen soziologia delakoa. Horren arabera, askoz garrantzitsuagoa da jakitea zer pentsatzen duen epaileak honako edo halako gairi buruz, legeak beraiek ezagutzea baino. Hori hala da. Zuk jakin behar duzu zer epaile daukazu aurrean.

Haizea Núñez

1987, Donostia

Madrilen hazi zen Haizea Núñez, eta orain sei urte itzuli jaioeterrira. Zuzenbide ikasketak egin zituen Madrilgo Unibertsitate Autonomoan eta EHU-n, eta hainbat okupazio-mugimendutan buru-belarri ibilitakoa da. Beste hainbat kiderekin batera, Donostiako Okupazio Bulegoa sortu zuen. 2011tik hona, Atzieta kolektiboan jardun da abokatu. Irailean utzi zuen taldea, eta orain LABen ari da lanean.



Zer beste alde dago ikasketen eta jardunaren artean?

Klasean ikasten dugu zuzenbidea positiboa dela, objektiboa, jurisprudentzia jarraituz gero lortuko duzula dena delako emaitza, eta hori ez da gertatzen. Horrela prestatzen ditugu gauzak, baina beste estrategia batzuk ere hartu behar dira kontuan: herri mugimenduen kasua bada, nola lantzen den kasu hori komunikatiboki, zer-nolako presioa sar diezaiokezun epaileari bai eta kontrakoari ere. Badaude beste negoziazio-estrategia batzuk eta ez dizkizute inoiz esplikatzen, ez dizute esaten zer-nolako tresnak dituzten fiskalek zigor arloan. Ateratzen zaren arte ez dakizu zer den epaiketa bat.

Behin baino gehiagotan aipatu dituzu herri mugimenduak. Zertan eta nola hasi zinen?

Unibertsitatean nengoela pil-pilean zegoen Bolonia Planaren aurkako mugimendua. Madrilen bazegoen ikasle-askanbladen koordinakunde bat, eta geuk zuzenbideko asanblada egin genuen eta handik sartu nintzen bai okupazio mugimendura bai etxebizitzaren aldekora.

Complutense unibertsitatean eraikin bat okupatu genuen, eta Facultad Okupada Autogestionada deitu. Hiru hilabete iraun zuen. Carlos Berzosa IUko errektoreak bota gintuen: 100 eta piko polizia etorri ziren gau hartan tokia zaintzen ari ginen 10 lagunak botatzera. Halaxe hasi nintzen.

Eta unibertsitatea baino lehen?

Ni oso eskola pribilegiatu batean egon nintzen, La Moralejan. Gurasoek nahi zuten gure heziketa ondo ordaindu, eta bidali gintuzten PSOEko elitearen zein Madrilgo burgesia progrearen seme-alabek ikasten duten tokira. Eskola horretan sartuta egon nintzen beti, ghetto txiki batean, harik eta unibertsitate publikora pasa arte. Ordura arte, politikari buruzkoak telebistan bakarrik ikusten nituen, liburuetan, edo familiako eztabaidetan, zeren aita beti izan da ezker-tiarra eta euskalduna, eta ama, berriz, eskuineko familia batetik dator.

Jauzi handia egin zenuen, beraz.

Bai, eta oso bortitza izan zen. Batetik erabaki nuen unibertsitate publikora joatea, eta ez hori bakarrik, etxetik gertu zegoen mintegi batean hasi nintzen



lanean, loreak zaintzen, eta beraz lehengo urte horretan ia ez nintzen gurasoen etxean egon. Gero, bigarren urtean bloke bat okupatu genuen, eta halako leherketa moduko bat gertatu zen: etxetik joan nintzen, eta gainera, armairutik atera.

Zer eman zizun okupazioak?

Hasieran oso modu idealistan ikusten nuen. Proiektu horretan oso jende ezberdina batu ginen: batetik, ikasle mugimendutik gentozenok, eta, bestetik, etxebizitzaren aldeko jendea, kalean bizi zirenak eta beste. Batzuk oso pribilegiatuak ginen, egunero klasera edo lanera joaten ginen, eta beste batzuek,

Merezitako errieta

Gogoan dauzkan kasuez galdetu diot Núñezi eta irribarrea ezpainetan ekarri du bat gogora: “Oso kasu polita izan zen Urkulluri Kursaaan egin zioten eskratxearena. Hiru ekintzaile sartu ziren, pankartekin eta beste, kantuan. Oso polita izan zen zeren epaileak benetan sinesten zuen Urkulluk halako errieta bat merezi zuela”.



berriz, bestelako beharrak zeuzkaten. Gainera, guretzat oso garrantzitsua zen asanbladetara joatea eta hori guztia, orduan talka handiak egon ziren, errealtate-kolpe handi bat jaso genuen.

Hala ere, esperientzia hori gabe, ni gaur ez nintzateke naizen hori izango. Emakume batzuk bizi ginen han, eta oso inportantea izan zen geure burua trebatzea hainbat arlotan, baita talkan ere, gure kideak ziren mutilekin eztabaidatzea erabakien inguruan. Egutero ari ginen borrokan eta gauzak sortzen. Urte bat egon ginen bloke horretan, eta gero etxebizitza bat okupatu genuen beste bloke batean emakumeok bakarrik.

Zer dela-eta?

La Alarma zentro soziala hustu nahi zuten, eta erresistentzia egon zen. Hainbat mikro-matxismo eta eraso gertatu ziren, eta horren ondoren asanblada bat egin genuen, eta proposatu emakumeok bakarrik batzea. Talde feminista bat jarri genuen martxan eta batzuei kartzelari buruzko kezkak sortu zitzaizkigun. Galiziara joan ginen emakumea eta kartzelari buruzko jardunaldi batzuetara eta erabaki genuen talde berezi bat egitea emakume preso sozialei bisitak egiteko. Horren ondoren okupatu genuen etxea, batetik geu bizitzeko eta bestetik presoak hara etor zitezen, baimenak-eta zituztenean.

Zer moduzko esperientzia izan zen bisitena?

Gure super-proiektua zen emakume mordo batekin ipintzea harremanetan eta azkenean emakume bakar batekin egin genuen kontaktua, hark esan baitzigun behar zituela bisitaldiak. Bestalde, makro-espetsuek geneuzkan buruan, Soto del Real eta abar; Briebara joan ginen, ordea, kartzela txiki-txiki batera. Ikusi genuen Euskal Herriko jendea joaten zela asko espetsuetara, eta ijitoak ere bai pila bat. Bi klan horiez aparteko presoak nahiko abandonatuta zeuden. Komunitaterik ez dagoen heinean, jendea oso bakarrik geratzen da kartzelan. Azkenik, gure asmoa zen halako harreman horizontal bat eraikitzea, baina zaila zen, zeren barruan dagoenak behar bereziak ditu eta badaki kanpoan dagoenak baliabide gehiago dituela kanpoan egote hutsagatik.

Zenbat denboraz aritu zineten horretan?

2008ko azaroan okupatu genuen etxea eta 2010eko martxoan bota gintuzten. Ondoren, lagunak etxetan egon nintzen, eta gero hona etorri nintzen. Bisitei dagokionez, nik ez, baina kideek jarraitu zuten proiektuarekin.

Zer moduzko ongietorria egin zizun Euskal Herriak?

Oso zaila izan zen. 2010eko maiatzean etorri nintzen, eta uztailean gauza traumatiko bat gertatu zitzaidan. Patti Smithen kontzertuaren ostean Be Bop tabernara joan ginen sei lagun: bost neska eta mutil bat. Adiskideetako bat komunera joan zen eta gizon bat joan zitzaion atzetik, erasotzera. Adiskideak

lortu zuen ihes egitea, baina atzetik etorri zitzaion berriro gizona, heldu egin zion, eta orduan gu ere joan ginen laguntzera. Tipoak edalontzi bat hartu eta aurpegira bota zidan. Pentsa, heldu berritan, aurpegia apurtuta... momentu batean ni neu apurtu nintzen barrutik. Zorionez, lagun batek zaindu ninduen eta Bilgune Feministako eta Medeak taldeko kideek ere asko lagundu ninduten.

Euskara, behinik behin, ez da oztopo izan.

Oso argi neukan euskararen bila nentorrela, ez nuela nahi amona hiltzerik nirekin euskaraz hitz egin gabe.

Duela gutxi oso gauza kursia esan nuen, baina egia da: euskarak askatasuna eman dit, eta lasaitasuna. Gure herriaren zauriak bete-betean zeharkatzen du gure familia: batetik, amaren familiak hizkuntza zapaldu du; bestetik, aitaren familiatik datorkigun hizkuntza da euskara. Erantzukizun historikoa sentitzen nuen, nolabait ere. Batzuk modu bidegabea saiatu dira adar hau moztzen, eta banator ni hori eragotzera. Azken batean, nire aita alemana izan balitz, txikitatik jakingo nuke hizkuntza.

Euskara eta askatasuna aipatu dituzu. Zelakoa da euskararen egoera epaitegietan?

Oztopo handiak daude. Funtzionario gehienek ez dakite euskaraz eta gertatu izan zaigu epaileak esatea itzultzailea ez dela etorri, eta orduan, gaztelaniaz egingo dugula, "axola ez bazaizue". Urraketa horiek etengabe gertatzen dira.

Oso paradoxa tristea bizi dugu. Adibidez, etortzen bazaigu indarkeria matxista jasan duen emakume bat, eta emakume horrek nahi badu bere prozesua euskaraz egin, abokatuok esan behar diogu prozedura asko luzatuko dela, tartean itzulpena dagoelako, eta beraz, nahi baldin badugu gauzak azkar egin, urrutze-agindua ahalik eta bizkorren lortzeko eta hori guztia, bada gaztelaniaz egin behar dugula prozedura. Aldiz, defendatzera bagoaz, idatzi guztiak euskaraz sartzen ditugu, idatzi potoloak, denbora lortzeko eta bien bitartean okupazio bat luzatzeko, adibidez.

Azkenaldian, besteak beste, Gipuzkoa Zutik mugimenduaren abokatu ibili zara.

Lau kasu daude gaur egun epaitegietan. Espediente administratibo batzuk ireki



dituzte Gipuzkoa Zutik-en parte hartu zutenen aurka, Mozal Legea aplikatuta, baina hiru atxiloketetan, soilik ertzainek dauzkate kereilak, eta epaileek uste dute nahikoa zantzu daudela pentsatzeko legez kanpoko atxiloketak gertatu zirela, ertzainek oso modu maltzurrian erabili zutela legea jendea kaletik kentzeko. Gero beste kasu bat dago, kazetari baten aurkako eraso bat.

Normalean, halako kasuetan gabiltzan abokatuak defentsan gabilta beti, oraingoan, ordea, ofentsibara pasa gara, ikusi baitugu zeuzkaten tresna guztiak erabili dituztela haiek hau isilarazteko eta jendea kaletik ateratzeko. Nik argi daukat jendea atxilotu zutela beldurra zabaltzeko, zeren hor zegoen jende gehiena ordura arte kaleko protestetan parte hartu gabea zen, eta ez zekien atxiloketa bati nola aurre egin. Indar hori eten nahi zuten, nahiz eta ekintza baketsuak izan. Erakutsi nahi genuen joko horretan ere jarriko ditugula gure mugak.

Zeintzuk dira Mozal Legearen eta errepresio "bigunaren" arriskuak?

Nik uste dut boterean daudenek ikasi dutela kolektiboki erantzuten diogula honi, eta ez dela horren errentagarria

gu bezalako jendea kartzelan edukitzea. Aldiz, gu ekonomikoki xahutzea eta kaltetzea ondo datorkie, eta edukitzea jendea ez dakit zenbat denbora diru-bilketak antolatzen, zeren tarte horretan ez gaude pentsatzen eta eraikitzen.

Eta horren aurrean, zer egin?

Hainbat frontetan jardun. Oso ondo aurreikusi behar dugu zer ekintza egin nahi dugun, akaso baita aurrekontuak egin ere. Bestalde, bizitzaren burujabetza bermatu behar genuke hainbat arlotan. Estrategia integrala behar genuke. Nik uste dut eztabaida batzuk edukitzeko denbora behar dela, baina gure agenda beti presaka doa, beti erantzunean: hortxe harrapatzen gaituzte beti, ez daukagulako epe luzerako planik. Iruditzen zait herri mugimenduetan ez dagoela ikuspegi estrategiko hori.

Itxaropentsua al zara, hala ere?

Nire sentsazioa da gauza txiki asko ari direla bor-borka, adibidez, apustu polita dago ekonomia sozial eraldatzailearen aldetik. Ari gara gauzak eraikitzen, nahiz eta konfrontazioan hainbeste jardun ez. Baina bueno, konfrontazioa eta eraikuntza halako bals batean aritu behar dira beti. ■

11itzulpen

**EUSKARATIK
INGELESERA
ZUZEN**

**INGELETIK
EUSKARARA
ZUZEN**

<http://www.11itzulpen.eus>

info@11itzulpen.eus

Skype:
11itzulpen (34) 699 433 121

**Zure jendea,
zure hedabidea,
zure iragarkia:**

**JARRI PUBLIZITATEA
HEMEN**



ARGIA

943 371545

publiz@argia.eus

www.argia.eus/tarifak

Inkezka



Estitxu Garai Artetxe

EHU-KO IRAKASLEA

@egarai

Lantzean-lantzean eurekin egiten dugu topo, gero eta sarriago, egia esan. Inkesta, barometro eta mota guztietako iritzi-neurketei buruz ari naiz. Agian, kopuruari erreparatuz gero, ez dira hainbeste ugaritu; bai, ordea, hartu duten garrantzia eta arreta mediatikoari dagokionez. Hedabideetako solasaldietarako gogoko bazka dira.

Batzuetan, amorrarazi egiten gaituzte, gaiari heltzeko eran eta galderen formulazioan bertan igartzen baitzaie jite politikoa. Gehienetan, ordea, ez dakit behar beste presente dugun inkesten gaitasun performatiboa, alegia, errealtatea neurtzeko edo aztertzeko ez ezik, errealtatea sortzeko eta eraldatzeko ere balio dutela. Eguneroko adibide bat jartzearen, demagun afaltzeko bi jate-txeren artean aukeratu behar dugula, eta bata jendez josita dagoela eta bestea erdi hutsik. Nora uste duzue joko dugula? "Jendea nora, ni hara" printzipioak funtzionatzen du, baita politikan ere. Bizitzan hartzen ditugun erabaki guztiak ez dira sobera meditatutak, eta gehiengoak iritzi batekoa edo bestekoa dela uste izatea edo alderdi honek edo besteak irabaziko duela pentsatzea ez da ahuntzaren gauerdiko eztula. Inkestak horretara datoz.

Badirudi komunikabideak ere horretaz jabetu direla. Euren ikerketa propioak bultzatzeaz gain, euren galbahetik pasa ostean iristen zaizkigu beste erakundeek egindakoak ere, nahi dutena eta nahi eran azpimarratuta. Eta, nola ez, ikerketa baten emaitzei daren ebidentzia edo kutsu objektiboak eraginda irensten ditugu.

Nahiko zabalduta dago komunikabide bakoitzak bere lerro editoriala duela eta albisteak horren arabera jorratzen dituztela, baina inkesten aurreko antigorputzak ez ditugu hain garatuta. Hortaz, datu demoskopikoek iritzi publikoa bideratzeko eta portaera politikoak

Nahiko zabalduta dago komunikabide bakoitzak bere lerro editoriala duela eta albisteak horren arabera jorratzen dituela, baina inkesten aurreko antigorputzak ez ditugu hain garatuta. Hortaz, datu demoskopikoek iritzi publikoa bideratzeko eta portaera politikoak baldintzatzeko balio badezakete, botere mediatikoa areagotzeko tresna baten aurrean gaude

baldintzatzeko balio badezakete, botere mediatikoa areagotzeko tresna baten aurrean gaude.

Ezer gutxi dakigu, halaber, ikerketa egiteko moduez. Laginari, aldiari eta akats tarteari buruzko datuak ematen dizkigute, baina ez, aldiz, "sukalde" lan famatuari buruz, hau da, estimazioak egiteko darabilten erari eta zalantzan dauden erantzunekin egiten diren desbideraketei buruz. Informazio hori jakingarria iruditzen zait diru publikoarekin ordaindutako ikerketetan, iruditzen baitzait, batetik, gardentasuna ezinbesteko ezaugarria izan beharko litzatekeela, eta, bestetik, datuak emateko orduan erabateko zorrozatasuna izan beharko luketela.

EAEko hauteskunde autonomikoen aurretik egindako azken EiTB Focus inkestan, esaterako, albiste bihurtu zen Arabako azken eserlekua dantzan egon zitekeela EAJren eta Ciudadanos-en artean, horri eman zitzaion interes informatiboa; are, 100 botoren gorabeheran ibili zitekeela baieztatu ziguten. Astebe-te eman zuten albistegi eta gaurkotasun solasaldietan datua bota eta bota, eta ez edozein astetan: hauteskundeen astean bertan. Soziologiari buruz asko jakin gabe ere, edozeinek suma dezake akats tartea eta zalantzatien portzentajea kontutan hartuta hainbesteko xehetasuna duen datua baieztatzeak funts handirik ez duela, eta eserleku bat boto gutxiren bueltan egon daitekeela hedatzeak eragina izan dezakeela lurralde horretan bi alderdiek jasoko dituzten botoetan.

Azkenak "nafarrometroa" eta Eusko-barometroa izan dira. Agian, artikulua hau argitaratzerako besteren bat ere tartekatuko da. Horietako bakoitzak aparteko analisisa merezi du, baina horiek ur handiak dira eta gaurko honetan nire inkezka adieraztearekin konformatu beharko naiz. ■

Sentikorrak

Wikipediak dioenez, sentimentalismoa mugimendu literario eta filosofiko bat izan zen – Gotthold Ephraim Lessing idazle alemaniarrek *Empfindsamkeit* deitua –, eta sentimentalismo erlijiosoa eta morala ere ekarri zituen berekin. XVIII. mendearen bukaeran sortu zen, mende bat lehenago abiatua zen Argien Garaiko arrazionalismoari aurka eginda.

Sentimentalismoak Erromantizismoari ireki zion atea, eta, mugimendu sentimentalistaren parte izan ziren sortzaile ugarietz gain (Samuel Richardson, Sophie de la Roche, Edward Young...), haren eraginpean ere aritu ziren Jean-Jacques Rousseau eta Johann Wolfgang von Goethe.

Segur aski, sentimentalismoa beharrezkoa izan zen gehiegizko arrazionalismoari aurre egiteko, eta gogoratze-ko gure emozioak eta sentipenak ere kontuan hartu behar ditugula, animalia arrazional hutsak ez garen heinean.

Baina sentimentalismoak baditu arriskuak, neurritz kanpokoa bada.

Mugimendu filosofiko gisara aspaldi desagertu zen arren, sentimentalismoak iraun badirauelako. Areago, sentimentalismoa, sentipenak eta emozioak pentsamendu arrazionalen gainetik jartzen dituen aldetik, nagusi da orain



Inma Errea

ITZULTZAILEA ETA IDAZLEA

@inmaerrea

Herritarrok sentimentalismo azukretsua ren pean biziko ez bagina, erneago ibiliko ginateke, ongintzako erakunde eta antolamenduak sobran leudeke


jendarte eta botere egitura mende baldarretan.

Gehiegizko sentimentalismoaren isla dira telebistako iragarki hipergluzemikoak, ekimen solidario *onkeriazale* asko, Eguberrian bereziki, baina ez solik (eta elkartasun masifikaturako dei zuriak, non maiz ahalegin “txiki” bat eskatzen edo irakoditzen) baitigute herritarro

hala enpresa irabazi-asmodunek nola irabazi-asmodunek gabeko erakundeek eta gobernuak beraiek, zertarako eta asetzeko berez herritarren zergen bidez bete beharko lituzketen beharrak (gizakien behar oinarritzkoenak, jana, atzerpea, osasuna, hezkuntza eta halakoak) edo jendarte aurreratuek berezko omen dituzten beste egiteko batzuk (osasun ikerkuntza edota aberastasunen partiketa zuzen eta bidezkoa, kasu).

Giza izaeran doakigu solidarioak izatea, estu lotuta sentitzea kidekoekin eta unibertsoko izaki bizidun guztiekin. Ebidentzia horri eutsita formulatu zituen sentimentalismo filosofikoak gizakion betebeharrak etikoak.

Orain kapitalismoak gizakion egiazko sentipenak eta jatorrizko joerak manipulatu, eta hain zuzenak ez diren gauzak sinetsarazi nahi dizkigu, sentimenduak bezain gizatiarrak diren zentzuduntasun eta logika ororen gainetik. Herritarrok sentimentalismo azukretsua ren pean biziko ez bagina, erneago ibiliko ginateke, eta aberatse-nei ez genieke utziko hain erraz ihes egiten haien irabazietatik behar dutena jendartearen beharrak asetzera bideratzeko haiek ere duten eginbeharrari. Eta sobera egongo liriteke ongintzako erakunde eta antolamenduak. ■



EUSKAL OROIGARRIAK

Harizko brodatu pertsonalizatueta adituak

Kale Nagusia, 16
San Jeronimo, 14
Portu, 14

20003 Donostia · Euskal Herria

© 650 210 339 / 618 094 279 · arkupe2@gmail.com

Zero, zabor



Mikel Basabe
IRAKASLEA

Hezkuntza eta hizkuntzan EAJk eta PSE-EEk sinatu duzuen gobernu-ituna txarra da.

10. Helburu zehatzik ez daukazu: zein da ikasleek DBH amaitzean euskarari eta gaztelanian izan behar duten irteera-maila? B1? B2? Zein? Eta ingelesean? Horien parekoa, txikiagoa... Zein?

9. Irteera-maila zein den ez badakizue, zer bilatzen duzue ingeles gehiago sartzearekin? Helburu zehatzik ez baduzue, zergatik ordu bi gehiago, eta ez hoge minutu edo hoge ordu gehiago? Zergatik hamar urteko umeekin hasita, eta ez zortzikoekin?

8. Hizkuntza-planak egoera soziolinguistikoa-ren arabera egin behar ei dira. Ingelesaren hizkuntza-planak ere "gizarte-hizkuntza errealtatea kontuan hartuz [sic]" egingo ditugu, ala hori idaztean euskarari buruz baino ez zineten ari?

7. Zer esan gura du horrek? Ingurune erdaldunetan euskara gehiago irakatsiko dela eta ingurune euskaldunetan, berriz, gaztelania-ordu gehiago egingo direla? Alderantziz?

6. Eta irteera-maila? Ingelesean eta gaztelanian gaitasun bera eskatuko zaie EAEko ikasle guztiei, non bizi diren ere. Euskaraz ere bai? Euskarari ez? Helburu ezberdinak Lanestosan eta Elorrioren? A! Egia! Irteera-mailarik ez duzue zehaztu!

5. Ea ondo ulertu dudana: irteera-mailarik zehaztu ez, ezta egoera soziolinguistikoak zer ekarriko duen ere. Nola segurtatuko duzue eredu eleanitz berriak balioko duela euskara nahikotasunez jakiteko? Nork ziurtatuko du? Hezkuntza Sailak atzera bota ahal izango ditu ikastetxeen hizkuntza-planak?

4. Nola, nork... eta noiz? Hamar-hamabost urte barru, kaltea eginda dagoenean, euskararik ez dakien gazte gehiago daukagunean?

3. Orain arte ez bezala, zein neurri zehatz hartuko duzue DBH amaitzean ikasle guztiek jakin ditzaten hizkuntza ofizial biak? (Alegia, legea bete dadin).

2. Gogorazten dizuet euskaraz B1 maila onartzen diela Jaurilaritzak, DBH euskarazko ereduaren amaitutako ikasleei. Ingelesean beste hainbeste? Gehiago ez, seguru, ingelesez irakasteko nahikoa baita B2. Berdin, beraz, hizkuntza ofizialean eta atzerrikoan? Bientzat B1? Ez, ezta?

1. Orduan? Zein da ingeleseko helburua? A2? Eta horretarako ituneko berba-jario guztia? Ala euskarazkoa igoko duzue, ingelesekoa ere handitu ahal izateko? Eta zelan? Orain arteko bidetik ez behintzat.

0 biribila, zuentzat. Ez baitzarete ezjakinak, iruzurtiak baino: apropos utzi duzue helburua zehaztu barik: ezer agintzen ez diguzuenek, ezin dizuegu ezer eskatu.

– 1. Gobernu-itunaren beste atal batean hauxe irakurri dut: "Ondare Kulturalaren Euskal Legea onestea". Jaurilaritzaren Irekia webgunean *Anteproyecto de Ley de Patrimonio Cultural* eta *Euskadiko Ondarearen Lege Aurreproiektua* daude irakurgai. Bertsio bietatik, zein onetsiko duzue? Ez baitiote gauza bera. Aukeran, euskarazko bertsioa: herritarrontzat hobe da, nahiz eta bi-biak hobetzeko modukoak diren. Ala ingelesez idatziko diguzue baleko legea? ■

Francoren bilobari gutuna



Oihana Etxebarrieta
KAZETARIA
@BetaurrekoMorea

Berriki, *Francoren bilobari gutuna* antzezlanak ikusi dut. Ez dakit ezaguna egingo ote zaizun. Zu ageri zara bertan, zeharka askotan, baina hor zaude, ezin duzu ihes egin. Guk ere ezin dugu ihes egin, gu geu ere bagarelako historia hori.

Hunkigarria da bertan kontaktzen dena, lasai, ez dizut *spoilerrik* egingo. Soilik esango dizut ospitale batean gertatzen dela dena. Bertan bildutakoek iragan gordina daukate, bakoitzak berea, baina askotan besteenarekin elkarlotzen dena. Eta elkarlotura horretan, hitz gutxiarekin, asko esatea lortu dute antzezleek, gaurdaino haien

mamuak ekarri dizkigute, eta ez dakit aretoan zeuden besteen atzetik dauden, baina nik mamu horiek nirekin sentitzen ditut oraindik. Mamu horiek zurekin dute zerikusia, zure familiarekin, zure iraganarekin eta orainaldiarekin ere.

Horregatik idazten dizut gutun hau. Mamuak askatu behar ditugu, lur eman behar diegu, mamuekin bizi direnei bakea eman behar diegu, eta zure egitekoa horretan handia da. Ezin dizut gehiagorik esan, joan zaitez eta ea zerbait mugitzen zaizun. Emanaldiak franco.eus atarian topatuko dituzue. Eta ea zerbait mugitzen hasten garen! ■

Youtuberrak

Ez dira ume-jolasetan ari

Geroz eta denbora gutxiago ematen dugu telebista aurrean, eta gehiago Interneten orotariko bideoak igo eta ikusten, belaunaldi gazteenek bereziki. Unibertso horretan izar berriak agertu dira: youtuberrak. “Frikiak” edota “tontolapiko hutsak” besterik ez direla pentsatzen baduzue, oker zabiltzate oso. Ikus-entzunezko edukiak kontsumitzeko ohiturak errotik aldatu dituzten mihiluzeok, erreferente bilakatu dira komunikazioan, sareak eskaintzen duen askatasuna ardatz.



Jon Torner Zabala
@jtorner

Telebistako audientzia-datuei erreparatuta, konturatuko gara programarik ikusien artean beti dagoela futbola. Baita Tele5 edo La1 kateetako saioak ere, Hego Euskal Herriaren kasuan bederen. Youtuber arrakastatsuenak, al-diz, bideo-jokoez mintzo dira, edota estetikari buruzko gomendioak ematen dituzte, orotariko produktuak erosi eta zorroetatik nola ateratzen dituzten erakutsi, eskulanak egin, haien egunerokoa deskribatu eta abar. Ikus-entzunezko edukien kontsumitzaile gazteenek bestelako interesak dituzte. “Telebista pasa den mendeko asmakizuna da”, diote. Horretan, arrazoirik ez zaie falta.

“Youtuberren kontu hori guztia zer den oso ongi ez badakizu, albiste txar eta on bana dugu zuretzat: Txarra da zahartzen ari zarela, eta ona, gu ere adinean aurrera goazela eta, gaur, apur bat

modernizatzen saiatuko garela”. *El Enganche*-ko kazetari Francisco Izuzquiza youtuberren gaineko irratsaioan egin zuen *introt*a primeran datorkigu, hura bezala, gehiago identifikatzen garelako futbol kontsumitzaile tradizionalen –adinez bederen–, Youtuben kanal propioa sortu eta kontu kontari aritzen diren *influencer* gazteagoekin baino.

Youtube da munduan hirugarren webgunerik ikusiena –Google eta Facebook ditu aurretik–. 1.800 urte beharko genituzke bertan dauden grabazio guztiak ikusteko. Bi hilabetetan webgune horretara bideo gehiago igotzen dira, AEBetako hiru telebista kate nagusiek 60 urtetan sortu dituztenak baino. Nerabeak dira erabiltzaileetako asko, smartphone, tablet edota ordenagailuz konektatzen direnak, baina datuek diote 18 eta 40 urte arteko herritarren artean ere tele-



bistaren audientziak erruz gaintitzen dituela. Ikus-entzunezko edukiak kontsumitzeko ohiturak aldatzen ari dira; zer, noiz eta nola ikusi gure esku dago geroz eta gehiago. Gaur egungo izarrak youtuberrak dira eta ez ditugu telebistan ikusiko. Haietako batzuek gainera dirua irabazten dute, horretatik bizitzera iristeko adina zenbaitetan, euren bideoetan iragarkiak txertatzen dituzten marka komertzialen ekarpen ekonomikoari esker. Youtube, youtuberrak, hura dugu etorkizuna, hura orainaldia, bere alde on eta txarrekin.

Zertaz aritzen dira youtuberrak?

Edozer gauzari buruz. Bota gai bat, bururatzen zaizuen arraroena, eta ziur badagoela horri buruz hitz egiten duen youtuberrik. Eta ez badago, ziur aurki agertuko dela. Arrakastatsuenek, mu-



20-25 urte dituzte youtuber arrakastatsuenek. Gazteek gustuko dituzten gaiez hitz egiten dute, gazteek hitz egiten duten moduan, eta belaunaldi berrien erreferente bilakatu dira. Ikus-entzunezko edukia kontsumitzeko ohiturak iraili ditu Internetek, telebista ia erabat alboratzeraino.

IRUDIA: MARKETING ONLINE BLOG

tilen artean bederen, bideo-jokoak dituzte ardatz, mundu osoan jarraitzaile gehien duten PewDiePie, HolaSoyGerman eta Smosh adibidez. Uneotan 50 milioi harpide inguru du lehenak, 30 milioi bigarrenak eta 20 milioi hirugarrenak. Adin tarte berekoak dira hirurak (23-28 urte), top-zerrendan ageri diren gainerako youtuberrak bezala.

Nesken artean aniztasun handiagoa dago. Egia da moda eta estetikaren inguruko gomendioak ematen dituztenak direla nagusi, Yuya (14 milioi harpide

ditu) eta Zoella (11 milioi) kasu, baina bi horiek ere gai askori buruz mintzo dira, eta berdin Jenna Marbles (17 milioi), eguneroko kontuei umorez heltzen dien estatubatuarra.

‘Umboxing’ euskaraz

Harritu gaitu jakitea, bestalde, jarraitzaile gehien dituzten kanalen artean *umboxing* egiten dutenak daudela, alegia, orotariko produktuak erosi –edo “opari” bezala jaso– eta zorroetatik kameraren aurrean ateratzen dituzten youtuberrak. Lehenbiziko *umboxing*-a 2006an egin zen Nokia E61 telefono batekin. Ondoren etorri dira mota guztietako produktuak: jostailuak, txokolatezko arrautzetako sorpresak, gozokiak, etxeko tresnak eta abar luzea. *Unpoltsing* euskaraz egin duenik ere bada: Super Hiper Txopek, Nerea Arriola do-

» PewDiePie suediarrek hilean zazpi milioi euro irabazi zituen 2014an, ‘Expressen’ egunkariaren arabera

nostiarrek, “Sorturen kongresuan pe-tatzeko militante eredugarriaren kita” erakutsi du bere kanalean.

Euskaraz aritzen diren youtuberrak oso gutxi dira oraindik, eta haien harpide kopuruak ez du zerikusirik sektoreko munstroek dituztenekin. Zuriñe Darceles hondarribiarra da bat, haur eta



helduei zuzendutako kanal bana duena, bietan lehena euskaraz: Sleeptak. Eskulanak egiten ditu, esperimentuak, animazioak...

Sarean aurki dezakegun aniztasunaz jabetzeko, adibide deigarri bat jartzearen, *Popeye arrepentido* izena darabilen Jhon Jairo Velásquez kolonbiarraren kanala aipa genezake. Medellingo droga karteletako sikarioa, Pablo Escobar nar-kotrafikatzaile ezaguna (1949-1993) "patroi" zuena, 300 lagun hil zituela aitortu eta 23 urte preso eman dituen, youtuberra da gaur egun. Pelikula batetik ateratakoa dirudien urtetako esperientzia kontatzen du bideoetan, Gobernuarekin zein harreman zuten, Escobarren indargune eta ahulguneak zeintzuk ziren... Interesa duenik –deitu "morboa" nahi baduzue– ezin ukatu.

Youtube, dirua egiteko makina... gutxi batzuentzat

Diru kopuru zehatzak ematea ezinezkoa da. Nolanahi ere, hedabideek haitzen dituzten zifrak eratzeko modukoak dira. *Expressen* egunkariaren arabera, esaterako, bideo-jokoez mintzo den PewDiePie suediarra, 50 milioi harpide dituenak, hilean 7 milioi euro irabazi zituen 2014an, bere kanalean Youtubek automatikoki paratzen dituen iragarkien eta, batez ere, haien produktuak kamera aurrean erakustea-gatik marka komertzialek ordaindutako dirutza medio.

Bideoetan txertatzen diren iragarkien bidez dirua irabazteko, Youtuberi baimena eman behar zaio bideoak monetizatu eta publizitatea jartzeko. 1.000 bider ikusitako bideo bakoitzagatik 2 eta 8 euro artean poltsikoratu daitezke,

Batez ere bideo-jokoez aritzen den PewDiePie suediarra da mundu osoan harpide gehien (50 milioi inguru) duen youtuberra. Gaztetxoenen artean, arrakasta handia du 'unboxing' fenomenoak, alegia, produktuak euren zorroetatik ateratzeko. Gustuko dute, esaterako, txokolatzeko arrautzetan youtuberrei zein sorpresa egokitu zaien jakitea. Euskaraz 'unpolsing' egin duenik ere bada: Super Txopek "Sorturen Kongresura eraman beharreko kita" aurkeztu zigun. Youtuben aurki daitekeen aniztasunaren isla dira 'Popeye arrepentido' Medellingo droga karteletako sikarioaren kanala, eta emakumeen eskubideez edota indarkeria matxistaz hitz egiten duen Ray NTG.

hainbat faktore gora-behera: Erabiltzaileek bideoak osorik ikusten dituzten ala ez, norberak duen harpide kopurua, egun bereziak diren (Gabonak adibidez) eta abar. Irabazien parte bat Youtubek –alegia, Googlek– jasoko du.

Youtubeko kanalak geroz eta harpidedun gehiago izan, orduan eta erakargarriagoa bilakatuko da euren produktuak iragarri nahi dituzten enpresentzat. Telebista bera baino amu gozoagoa izan daiteke Internet, kontsumitzaile gazteenak helburu dituzten publizitate-kanpainentzat bereziki. Hainbat modura egin daiteke: Youtuberrek marka jakin bateko produktuez hitz egitea, produktu horien inguruko tutorial bat sareratztea (makillatzeko gomendioak ematea, esaterako) edota marka horretako zapatila, kamiseta, betaurreko edo dena delakoak jantzi eta argazkia partekatzea Facebook, Twitter, Snapchat eta Instagram bezalako sare sozialetan, elkar elikatzen baitute plataforma guztiek. Tranpolin moduan ere baliatu daiteke

Internet, alegia, youtuber gisa ezagutze-
ra eman eta telebista iragarkiak egiten
hastea, aurkezle edota gidolari aritzeko
lan-kontratuak lortzea... Magia trukuak
egiten dituen Telmo Trenado youtuber
zumaiaarrak, adibidez, Euskaltel konpai-
niaren publizitate-kanpaina batean par-
te hartu du.

Gauzak argi izatea komeni da, dena
den. Ez da batere erraza bideoak igotze-
tik bizitzea. Oso gutxi lortzen du. Ordu
asko eskaini behar zaizkio, eta zortea
izan. Adituen gomendioa da ez bilatzeko
hasieratik dirua irabaztea. Lehendabizi
jarraitzaile talde fidela lortu behar da,
eta haiekin harreman iraunkorra sortu.
Gero geroakoak.

Telebista, pasa den mendeko asmakizuna

Youtuber moduan arrakasta lortzen la-
guntzeko gida mordoa dago eskuraga-
rri. Ideia ongi mamitzeko, bideoei uki-
tu berezia emateko, irudia eta soinua
zaintzeko, sare sozialak baliatzeko... eta
azken gomendio bat: "Telebista ikusiko
duzu pasa den mendeko asmakizun bat
bezala". Internetek ematen baitu aska-
tasun handiagoa, bideoak nahieran eta
intimitatean ikusteko aukera. Intimite-
te hori, edota adin txikikoek Internetera
igotako bideoen bitartez dirua iraba-
zi ahal izatea –helduen baimena behar
da horretarako– arrisku-faktoreak dira,
gurasoen "nartzisismoa" sobera elikatu
dezakeelako, seme-alabak pertsonaia
famatu bilakatu nahi horretan, non eta
Internet bezalako "mundu kaotikoan",
José Antonio Luengo psikologoak dioen
moduan.

Espainiako Estatuan 2 eta 11 urte
arteko umeen hamarretik zazpik egu-



nero ikusten dute Youtubeko bideoren bat. Internetek aukera ematen die haien idoloekin elkar eragiteko; youtuberrek gazteei interesatzen zaienaz hitz egiten dute, gazteek lagun artean hitz egiten duten moduan, ia mugarik gabe. Orain arte behintzat. Youtuber batzuek euren auzoa nolakoa den erakusten dute, haien etxea, logela, armairua... Ezer asaldagarriarik ez. Badira, ordea, politika edota erlijioari buruzko iritziak ematen dituztenak, edo hizkera zakarregia erabiltzen dutenak. Hori horrela, Youtubek jakinarazi du diru-sarrerak ken-

» **JUNE FERNANDEZ:**
“Tentuz ibili beharko genuke. Boikot eta eskratxe feministak egiteko grina ulertzen dut, baina youtuber horien ospea kontuan hartuta, ez al da kalterako izango?”

duko dizkietela (bideoak monetizatzeko aukera ukatuta) “hizkera gordina” edo “umore berdea” erabili, “biluzte partzialak” edo “indarkeria irudiak” erakutsi, “droga kontsumoa bultzatu” eta “gai polemikoei buruz” (gerrak, politika...) hitz egiten dutenei. Duela bizpahiru hilabete ko kontua da, eta zein ondorio izango duen ez dago argi oraindik. Erabakiak haserrea eragin du halere, bereziki hizkera zakar, oihu eta irainak ezaugarri dituzten youtuberren artean –gizonezkoak gehienak–, Internetek erabat librea beharko lukeela iritzita.

NERABEAK MINTZO: “TELEBISTA, PLAY-AREKIN JOLASTEKO”

Youtuber fenomenoaz irakurri eta entzundakoak gure inguruko errealtatearekin bat datozen jakiteko, Iker 12 urteko mutilari eta Maite 15 urteko neskari galdetu diegu gaiaren inguruan. Hasi bakoitzak gogokoen dituen gaietatik (bideo-jolasak, bata, estetika kontuak, besteak) eta telebistaren gainbeheraraino, erreportajea idatzitakoarekin talka egiten duen ezer ez digute kontatu oro har.

Gustukoena dituzten youtuberrez galdetzean, Ikerrek aipatu ditu El Rubius, sTaXx, aLexBY eta Grefg, lauak mutilak, eta lauak Call of Duty bezalako bideo-jokoei buruz mintzo direnak bereziki, gaztelaniaz denak. Haien partidak zuzenean jarraitzea atsegin du Ikerrek, nahiz eta uste duen bideoek gehienez 10 minutu izan behar dutela. Maiz erabiltzen omen dituzte hitz itsusiak, eta sexuari buruzko komentarioak egin.

Maitek, bestalde, jarraitzen ditu Dulceida, Sara Baceiredo, Paula Gonu, Raquel Reitz, Marta Riumbau, Grace Villarreal edota Alex Puertolas, azken hau salbu, guztiak neskak, aritzen direnak bereziki moda eta estetika kontuez, baina bidaia ere deskribatzen dituztenak, edota eskulanak egin, egunerokoaz jardun... guztiak gaztelaniaz. Euskarazko youtuberrik ez du ezagutzen Ikerrek; Iban Garcia (DespertaVlogs.eus) aipatu digu Maitek.

Youtuberren bizitzak “oso dibertigarri eta interesgarriak” direlako ditu gustuko Maitek. Gainera, bideoak igotzen dituztenak gazteak direla nabarmendu du eta, telebistarekin alderatuta, une bakoitzean nahi duzuna ikus dezakezula. Ikerrek telebista oso gutxi ikusten du. “Soilik erabiltzen dut Play Station-arekin jolasteko”. Berarentzat pantaila hutsa da beraz, edukikaxa baino gehiago.


Datuek diotenez, ohikoena da mutilek bideo-jokoak eta neskek moda edota estetika gaiak jarraitzea. Bat datozen galdetuta, baietz erantzun digute biek. “Nola jantzi, orraztu, makillatu... kalera edo festa batera joateko ideiak hartzen ditut”, azaldu digu Maitek: “Mutilak Minecraft edota FIFA bideo-jokoetan aritzen dira haien denbora librean, eta jokaldiren bat ez badakite YouTube ikasten dute”.

Eskan informatika ikasten ote duten ere galdetu diegu. Baietz esan digu Ikerrek, jolasak eraiki eta teknologia garatzen irakasten dietela. “Asko gustatzen zait”, dio. Maitek, bestalde, ez du berez informatika ikasten, baina Teknologia ikasgaiaren ordenagailuak erabiltzen dituzte “batzuetan”. Irudiak egiteko Mongge programarekin aritzen dira gehienbat. “Youtuberi buruz ez dugu ezer ikasi, eta ez dut uste ikasiko dugunik”.

YOUTUBEREN ALTERNATIBAK

Youtuberen gakoetako bat egile esku-bideen kudeaketa da. Copyright duten abesti eta irudien erabilpena oso zorrotz kontrolatzen du, eta horrek sorkuntza librea murrizten du. Youtuberen alternatiba diren bestelako plataformek malguago jokatzeko dute zentzu horretan: Vimeo, Dailymotion, Diáspora, Veoh, Vevo...

Dena den, bai Youtuberen bai gainerako plataformetan CC (Creative Commons) lizentzia libreak erabili ahal dira, edukien zabaltzen eta moldaketa askea sustatzeko.



Feminismoa youtuber fenomenoaren aurrean

Pikara aldizkariko kazetari June Fernandez bilbotarrak youtuber fenomenoaz iritzia plazaratu zuen ARGIAren 2513. zenbakian, feministek jokatu beharreko rola inguruan. Dalas Review youtuberrari egindakoa du abiapuntu. Hiru milioi harpidedun baino gehiago ditu, eta bere diskurtsoa "misogino eta antifeminista" da, Fernandezek hitzetan. Dena den, zalantzan jartzen du feministak talde batek Madrilen burututako eskratxe (Review-ren liburu-aurrekepen bat oihuka eten zuten) edota Wismichu-ri egindako boikota (bere hitzaldi bat bertan behera geratu zen emakume batzuen presioagatik) ote diren biderik eraginkorrenak euren borroka gizarteratzeko, feministen aurka jartzen dituztelako youtuber horien zale diren neska gazteak: "Tentuz ibili beharko

genuke. Boikot eta eskratxe feministak egiteko grina ulertzen dut, baina youtuber horien ospea kontuan edukita, ez al da kalterako izango? Zenbat neska ari dira feministekin haserretzen, miesten dituzten komunikatzaileen kontra -gustuko ala ez, komunikatzaileak baitira- egiten dugulako?". Halere, Fernandezek argi du zer edo zer egin behar dela "emakumeak putak direla edota indarkeria matxistaren salaketak faltsuak direla esaten duten" youtuberrenkin: "Debekuak eta boikotak baino, nik beti nahiago dut kultura produktu arrakastatsuen kontsumo kritikoa sustatea eta alternatibak ikustaraztea". Horieta-ko batzuk dira Queer Avengers, RayNTG eta Psicowoman youtuber LGTB eta feministak.

Bestalde, Fernandezek dio berdintasunaren aldeko ekimenetan Youtubeko diskurtsoen inguruko hausnarketak gi-

datu beharko lirartekeela, baina errespetaz betiere, gazteek jarrera defentsiboa hartuko dutelako esaten badugu haien idoloak "tontolapiko hutsak" direla, bideo batzuk ikustean guk ere pentsatu dugun moduan, egia esan behar bada. Hanka-sartzea litzateke, era berean, friki edo umemoko batzuen kontua besterik ez dela esatea. "Komunikabide bat gehiago da", diote *El Enganche*-ko irratiaioan Dani Senabre eta Rodrigo Fález futbolaz aritzen diren kazetariak. Youtubera salto egin dute biek, besteak beste askatasun handiagoa eman eta haien buruen jabe izatea ahalbidetzen dielako, inoren esanetara lan egin behar izan gabe. Hobe dugu, beraz, kritika errazean ez erori eta youtuber fenomeno aintzat hartzea, han zailduko direlako hein handi batean etorkizuneko sortzaile eta komunikatzaileak, eta han bildu ikus-entzunezko edukien kontsumitzaileak. ■

gure artean 
euskaraz

Euskara airean dago: egunerokoaren txoko guztietara zabaltzen da, eta nahi duguna adierazteko eta lortzeko erabil dezakegu. Egin dezagun hegaz euskararekin eta euskaraz lagunekin, kideekin, neska-mutil berezi horrekin... noranahi heltzeko. Geure modura.

 **Bizkaia**
foru aldundia
diputación foral

www.bizkaia.eus



Maddalen Iriarte, EH Bilduko legebiltzarkidea

“EAJ-K BERE ESTATUTUETAN ERABAKITZEKO ESKUBIDEA IDATZIA BADU, EZAR DEZALA ESTATUTU BERRIAN ERE”

Donostia, 1963. Kazetaria iraganean, politikaria da orain. ETBn ilusio handiz lan egin zuen. Komunikazioa herrigintza balitz bezala landu duela esan digu Maddalen Iriartek eta telebista eredu berriaren alde ere tinko borrokatu duela. Kazetaritzako lehen lerroan iraun zuen luzez, lana ideologiaren gainean jarri zuelako: “Ideologiaz harago, talde lanean sinesten dut. Telebistan ez nuen kuadrilla egiteko jardun, eta Eusko Legebiltzarrera etorri naiz kuadrillakeriaz harantz joateko”. EH Bilduko eleduna da Gasteizko Eusko Legebiltzarrean.



Mikel Asurmendi

@masurmendi

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

EH Bilduren gobernu egitasmoa aurkeztu zenuen: feminista, behin hasteko eta bat.

Gobernu feminista aldarrikatu nuen, baina jendeak paso egiten ote duen nago. Aldarrikapena ezinbestekoa iruditzen zait, baldin eta egunero feminismoaren zentzuan lan egingo badugu. Gobernu feminista martxan jartzeak iraultza ekarriko lioke gizarte honi arlo guztietan. Biolentzia matxista gertatzen denean biziri asaldatzen gara, agerraldi sutsuak egiten ditugu, baina gaia egu-



neroko bizitza aldatzeko premia bezala ez badugu lantzen, ez dugu bortizkeria muturrekoa moztuko. Emakumea biktima bezala ageri ohi da, baina hori baino gehiago gara. Esaterako, munduko bake prozesuetan emakumeak parte aktiboa diren kasuetan, prozesu horien emaitzak emankorrak dira. Beraz, emakumeok jendartearen parte hartzeko berdintasun eskubidea merezi dugu. Eta ez da soilik bortizkeria jasaten dugula, emakumezkoak, besteak beste, ez du gionezkoaren soldata bera jasotzen.

Gobernatzeko beste kultura politikoa aldarrikatu zenuen inbestidura saioan. Zer da beste kultura politikoa bat izatea?

Bada, gure programan jasotako hainbat puntu lantzea: hasteko, gardentasun legea gauzatzea, alderdi politikoek egiten dutenekiko lege garden bat aplikatzea, herritarrek politikaren nolabaiteko kontrola izatea. Beste kultura politikoa bat da, jendeari galdetzea eta erantzuteko aukera izatea eragin handia duten gaitetan. Horregatik, Kontsulta Legea ere proposatzen dugu, adibidez, errauskailuaren gaian aplikatzeko. Halaber, kultura politikoa berriak lagundu behar digu eguneroko xextra politikotik ateratzen. Politikariok lehiaketa tonto samarrean ari gara, hitz handiago bat nork esango. Tonua apaldu behar dugu, konfrontazio politikoa ondo dago, baina horretan guk politikariok eredu izan behar dugu, kontzertazio politikoa beste era batez landu behar dugu, ez gaitetzen hitzetan ataskatu, betiko hitzek ez dute agian jada balio. Egia da, bakoitzak bere historia politikoa dauka, baina hogeita hamar urte ondoren geure jarrerak berritzeko garaia heldu da. Herritarrek guk baino maizago berritzen dute berea. PPko Alfonso Alonso jaunak niri egindako erreplikari esan zuen ados zegoela feminismoaren inguruan esan nuenarekin. Gustatu zitzaidan, PP eta EH Bildu beste ezertan ez baikaude ados. Eseri eta has gaitezen horretatik hizketan.

Zein da ezker abertzaleren legatu politikoaren 60 urteko zure balorazioa? Hau da, bere kultura politikoa, ETA tarteke.

Hasteko, egun ezker abertzalearen aukera EH Bildu da, eta bertan Sortu ere badago, eta badaude ere Aralar, EA eta Alternatiba. Lehen biek ezker abertzalea bere-berea egiten dute. EH Bilduk

» “Ni pisu bateko lurrean eseri nintzelako, aulkirik ez zegoelako, ez ninduten irtenbiderik gabeko bide batean sartu, hau da, garaiko kolegiara eraman beharrean ikastolara eraman nindutelako”

» “Alderdi subirano zaleak bagara, subiranoa izango garen neurrian galdetuko diegu herritarrei independentzia nahi duten edo ez”

» “Gobernu feminista martxan jartzeak iraultza ekarriko lioke gizarte honi arlo guztietan”

erabaki du zer izan nahi duen eta nola aritu nahi duen politikan: soilik bide politiko eta demokratikoetan, bideak ETA ukitzen duen tamainan esaten dizut. EH Bildu ezkerreko koalizio soberanista da. Horiek dira bide egiteko finkatu dituen irizpideak. Hauteskunde kanpaina bereziki, beste alderdiek ezker abertzalea izan dute hizpide EH Bilduren kontra jotzeko, baina orain beste gauza bat gara, handiagoa eta zabalagoa. Guk Euskal Herria herri subirano bezala kokatu nahi dugu etorkizunean, ezkerretik, bakea eta justizia sozialaren ildoan. Arduragabekeria handia litzateke –halaxe adierazi nion Joseba Egibarri– EAJk hori horrela ez baloratzea.

Ezker abertzalearen historiaren balorazioa Sortuk egin behar du bereziki, Arnaldo Otegi eledunak bere ekarpena egin du jada. Modu batera edo bestera baloratu daiteke, baina, ziur aski, oraindik garaia ez da iritsi hainbat gauza sakonean aztertzeko. Bake eta elkarbizitzan urratsak emateko garaia da, geroago historia berriari modu pausatua goan begiratzeko beta hartu beharko dugu, historiako pasarte batzuk lasaia go aztertzeko, bai batzuei bai besteei mina apur bat arindu zaienean. Ezker abertzalean ere badaude kaltetuak izan diren pertsonak. Esaterako, presoei eta iheslariei ez zaizkie berez dagozkien eskubideak errespetatzen. Lehenik zauriak ondo sendatu behar ditugu, orbanak betiko izango dira, baina zauriak ongi sendatzen baditugu ez zaie zornirik aterako. Bestela, historiak erakutsi digunez, ongi itxi ez ziren zauriek oraindik zorne botatzen baitute. Espainiako Altxamendu Nazionalaz ari naiz.

“Gure proiektua errealdismotik abiatzen da, zuena ez da egingarria”, esan zizun Egibarrek inbestidura saioan.

Gure proiektua egingarria da, eta EAJk beste proiektu bat balu, beste lehenetasunak balitu, arlo sozio-ekonomikoan adibidez, bada, guk proposatzen ditugun gauza batzuetara hurbilduko litzateke. Gure proiektua kontrastatuta dago, bere txosten ekonomikoa dauka. Beste gauza bat da, ereduak eta lehenetasunak aldatu behar izatea, orain politika batzuetarako erabiltzen ari diren diruak beste batzuetarako erabiltzea. Adibidez, daukagun sistema fiskala Europara gerturatzea proposatzen du EH Bilduk. Ez egun batetik bestera, bai-

KAZETARITZATIK POLITIKAGINTZARA JAUZIA

Kazetari lanetan aritzetik politikari lanetara pasa zinen hauteskunde kanpainan estreinakoz. Zer inpresio jaso zenuen?

Kanpaina oso gogorra izan zen. Higaduraz izugarri bizi nuen. Ez nuen diskurtso bera erabili herri guztietan, tokian tokiko berezitasunak ezagutu ondoren baizik, eta horrek lan handia ekarri zidan. Informazioaren esparruan, "egindako esaldiekin" funtzionatu dugu, eta politikari gisa ez nuen horrela jardun nahi. Esaldi anpu-
loak saihesten ahalegindu naiz. Esan beharrekoak kontrastatzen saiatu naiz, esan badut "40.000 lanpostu sortu ditza-
kegu arlo publikoan", ez da kanpaina halaxe esan behar delako. Gaiaz dakitenekin hitz egin dut, eta proposamena egingarria dela barneratu.

Inbestidura saioan, Lehendakari hautagai gisa mintzatu zinen. Zer moduz?

Buruan sekulako erreboluzioa nuen, irriño gutxi egin nuen. Egun historikoa izan zen, niretzat eta familiarentzat. Hitzaldia neronek idatzi nuen, kontrastatua noski, gure programan oinarritutako diskurtsoa baitzen. Saioak errespetua sorrarazi zidan, Egibarrekin buruz buru lehian aritzeak, adibidez. Mintzakideak "ezagunak" nituen kazetari bezala eta urduri nengoen. Hitzaldia ez da berez zaila, besteei ongi erreplikatzea bai ordea.

Uste zenuen bezalakoa al da politika?

Hasi berria naiz. Politikak, antzerkia dela esan gabe, errepresentazio puntu bat dauka. Eta hobe ez balu. Herrigintzan urrats handiagoak emango genituzke. Politikan norberak bere posizioari eutsi nahi dio, le-

gebiltzar honetan oraindik ere erresistentzia batzuk ikusten ditut kokapen batzuk ez galtzeko. Batzuek lainotzat joko naute, baina ni herrigintzan urratsak emateko lanera etorri naiz politikara.

Zer ikasi duzu sei hilabete hauetan?

Kazetaritzan bezala, politikagintzan etengabe ikasten jarraitu behar dudala. Herritarren kezkek bertatik bertara ezagutu behar ditudala. "Herriarekin eta herriarentzat" esatea erraza da, betetzen ordea zailagoa, izan ere, hutsune handia dago herritarren eta klase politikoaren artean. Jendeak bizi duena ezagutzeko haiengana joan nahi dut, kalera eta plazara. Politikari bezala herritarren artean nire burua kokatzen ikasi nahi dut, eta horretarako lehenik aldartea ongi eramaten –nerbioak kontrolatzen– jakin behar dut.

na aldatu nahi dutenekin akordatzeko prest gaude. EAJk guk presa dugula esaten du, bada, ez, guk geure bidea poliki egingo dugu. Gai bakoitza aztertuz eta gauza bakoitzean erreparatuz, kontu handiz, inork ez dezala pentsa nik nire seme-alabentzat nahi dudala Egibarrek egin nahi ez duenik. Batzuetan galdu behar da apur bat, "eman" behar da. Euskal Herriko herritar gehienok ondo bizi gara, baina milaka batzuk ez dira ondo bizi, argi indarra erabiltzeko arazoak dituzte. Ezin ditugu horiek ahaztu, milaka horien artean haur, nerabe, gazte eta helduak daude, pobrezia-
ren marran. Ez dugu bi abiadurako gizartea eraiki behar. Pentsiodun asko oso diru gutxiarekin bizi da. Bizitza osoa gogor lan egin ondoren, ezin dute zahartzaro duina bizi. Gure aldamenean bizi dira. Gehiengo ondo bizi gara, baina guztiok hobeto bizi gintezke, baldin oso ondo bizi garenok apalago biziko bagina. Ni prest nago.

"Ez dugu inor irteerarik gabeko bide batera eramango", esan zuen ere Egibarrek. Lehen hori ETArri eragozten zitzaion, orain EH Bilduri.

Guk ere ez. Inortxo eraman ere. Gure helburua herri honentzat irteera ho-
beak aurkitzea da. Ni pisu bateko lu-
rrean eseri nintzelako, aulkirik ez

zegoelako, ez ninduten irtenbiderik ga-
beko bide batean sartu, hau da, garaiko kolegiara eraman beharrean ikastolara eraman nindutelako. Herri honek es-
tatu lanabes batzuk martxan jarri zi-
tuen iraganean, hala kooperatibak nola ikastolak. Ordukoak irteerarik gabeko bidea irudi zezakeen, baina ez zen ho-
rrela izan. Batzuetan arriskatu behar da. Arriskatzeko ordua da.

Independentzia egikaritzen hasteko helburua duen indar politiko bakarra omen zarete. Ez dirudi herri hau oso independentzia zalea denik. Bakarrak zarete eta.

Une honetan, Euskal Herriaren indepen-
dentsia posible dela aldarrikatzen du-
gun bakarrak gu gara, baina EAJk ere bere estatutuetan independentzia alda-
rrikatzen du. Gero, Iñigo Urkulluk "in-
dependentzia ez da XXI. mendeko ter-
mino" esaten badu, bada, ulergaitza eta sinesgaitza iruditzen zait. Lehendakaria-
ri esango nioke, XX. mendean Norvegia edo Montenegro independizatu direla Europan. Eta XXI.lean ere Eskozia, Kata-
lunia edo Euskal Herria independizatu litezke. Izan gaitezke Danimarka, edo tamainagatik, Luxenburgoko bezala. Bitar-
tekoak behar ditugu herri bezala gara-
tzeko, beste edozein herriren baten pare egoteko. Herritarrei egia esan behar die-
gu. Alderdi subirano zaleak bagara, subi-

ranoa izango garen neurrian galdetuko diegu herritarrei independentzia nahi duten edo ez. Subiranotasuna parteka-
tzeko moduez ere hitz egin behar dugu alderdiok, estatu batzuek herriaren su-
biranotasuna bankuekin konpartitzen baitute, herritarrekin kontsultatu gabe.

Zer bitarteko behar luke herri honek, kasuon Espainiatik bereizten hasteko?

Hasteko, lan arloan inposatutako lan lege bat daukagu, langileek urtetan borrokan lortutako eskubideak erabat suntsitzen ari dena. Zergen kudeaketan, esaterako, aldundiek kudeatzen dituzte baina zerga askoren gainean ez dugu esku-hartzerik. EAJk baina, zeinekin hitz egiten duen araba-
gausa bat edo beste esaten du, denoi komeniko litzaiguke argiago hitz egitea. Halaber, Iruñeko Baluartean otsaileko Batzar Nazionalen Euskal Herria nazio bat dela esan zuten, erabakitze-
ko eskubidea duela, subjektu politikoa aitortu behar zaiola. Egia bada, bagara bi. Baina, EAJk ez du independentzia guk bezala aldarrika-
tzen, azken hamarkadetan behera egin du.

PSE-EE eta EAJren arteko gobernu akordioa gauzatu da. Historiaren harian...

Bai, baina EAJri ez dio gehiengorik ematen. Mendia andereari inbestidura saioan esan nion oso egoera zailan lor-
tu duela gobernuan egotea, ikusgarri-

tasun izugarria eman diona. PSEk hiru sail izango ditu, sekulakoa da hauteskunderen emaitzak kontuan hartuta, eta Espainian PSOE suntsituta dagoenean. Meritu hori aitortu nion Mendiari. Edozein kasutan, formula hau ezagutu dugu jada, eta une honetan Euskal Herriak beste une historiko bat bizi du, beste akordio bat behar genuke. Izan ere, Nafarroako egoera aldatu da, beste politika gauzatze bidean ari dira –ez dakit gauzatzerira iritsiko diren, estatu arrazoia indarrez ari delako horren kontra–, bertako indar politikoak sekulako lana egiten ari dira, egindako akordioa eredugarria da. Iparraldean, berriz, lehen aldiz hiru lurraldeak batuko dituen instituzioa izango da. Horiek horrela, herri honek beste akordio mota bat behar zuen, besteak beste, akordioak EAJri nolabaiteko betoa jartzen diolako.

EAJk Gernikako Estatutua eguneratu nahi du. Zuek zer jarrera hartuko duzue?

Guk proposamen bakar bati ere ez diogu muzin egingo. Estatutu berri horretan erabakitze eskubidea bermatzea ezinbestekoa da guretzat. EH Bilduk lan egingo du legebiltzarrean, mahai gainean ezarriko diren puntu guztietan. Noski, erabakiak geuk hartuko ditugu, aldaketa ekarriko duen akordioa lortzen saiatuko gara.

“Inor akordiotik kanpo geratzen bada, bere erabakiz gera dadila”, esan berri du Urkullu lehendakariak.

Hala beharko du. Baina denak batzeko zerbait egin beharko da, ezta? EAJk bere estatutuetan erabakitze eskubidea idatzia badu, ezar dezala estatutu berrian ere. Horixe aldarrikatu du Ortuzar jaunak oraindik orain. Baina, PP sartuko al da horretan?

EBBko buru Andoni Ortuzarren hitzetan, erabakitze eskubidea izango da estatutu berriaren muina. PSeren eta EAJren gobernu programak bat egiten omen du herritarren eskaera eta kezkekin.

Hori jendearen edo prentsa aurrean esan du, baina PSErekin sinatutako gobernu akordioan ez dago idatzita. Programak herritarren kezkekin bat egiten badu, legebiltzar honetako 75 kideetatik 57 erabakitze eskubideren alde gaude: EAJ, Podemos Elkarrekin eta EH Bildu. Herritarrek diotenez, %60k nahi luke galdetua izatea independentziaren



inguruan. Beraz, egin dezagun politika norabide horretan legebiltzarrean.

EAJk Estatuko aurrekontuak Espainiako Gobernuarekin adosten baditu, eragingo al du legebiltzarreko martxan?

Bai, noski. EAJk aprobetxatuko du PPren ahulaldia gauza batzuk lortzeko. Baina kromo aldaketa baino ez da izango, guk beste parametro batzuetan lan egin nahi dugu. Ezin ditugu onartu Espainiako Gobernuak legebiltzar honi jarri dizkion helegiteak. PPK esan du helegiteak kentzeko prest dagoela. Beraz, onartzen du berriazko politika ezarri duela. Orain, komeni zaionean, horiek kentzeko prest dago. Parametro horietan ezin dugu politika egin. Hori lotsagarria da eta herritarrei horrela

azaldu behar zaie, baita Espainiako Gobernuak zapalduta gauzkala ere.

Bitartean, zertan ari da Legebiltzarreko Autogobernu Batzordea? Zein da EH Bilduren ibilbide orria?

Oraindik ere ez dugu lehendabiziko bilera egin, lehenbizi denbora eman diogu Podemosi bere ekarpena egin dezan. Orain, batetik alderdiekin hitz egin behar dugu...

Beraz, luzerako da.

Bai, baina ez gara zerotik hasiko, aurreko legealdian lan bat egin zelako. Herri-tarrek lau urterako aukeratu gaituzte. Egibarrek esan zidanez, pazientzia historikoa behar da...

“ETB DESESPAINOLDU BEHARKO GENUKE”

Koldo Izagirre idazleak esana du ARGIA honetan: “Politikariek funtsean ez dute bide-orririk euskararentzat, ez dago politika zehaztu bat”.

Ados. Politika zehaztu behar dugu. Haste-ko, iragan hogeita hamar urteren ondoko azterketa egin beharko genuke, EAEri, Nafarroari eta Iparraldeari buruzkoa. Legebiltzar honetako kidea naiz, baina ez dut ahazten zein den gure herria. Hala ere, estatuen administrazioak zatitutako herri honetan euskarak dituen egoera ezberdinak trataera berezituak behar ditu. Euskararentzat egokiena litzateke elkarrekin lan egitea eta egitasmo integralago bat egitea, baina errealtatean Legebiltzar honek Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa ordezkatzeko dituen.

Euskararen osasuna ez da ona.

Bai. Zergatik euskaraz ikasi duten hainbat gazte ez diren gai euskaraz hitz egiteko? Zergatik ez duten nahi euskaraz hitz egin? Ez naiz ziur arazoak lege bidez bakarrik duenik konponbide. Gauza batzuk erabaki politikoez eta lege bidez konpontzen has daitezke, baina batez ere, hausnarketa sakona behar da.

Zure ustez, ETB herren geratu da. Zein eredu proposatzen duzu?

Ereduak elkarrekin eta adostuta izan behar du. Tokiko irritati eta telebistekin hitz egin behar da, herri txikia gara eta. Siner-

giak aprobetxatu beharko genituzke, ni horretan saiatu naiz ETBn aritu naizenean. “ETB desespainoldu” beharko genukeela esan nuen inbestidura saioan. Batzuek ez zuten ondo ulertu. “Bertako langileak desespainolizatzea” proposatu nuela ulertu zuten. Nik ez dut holakorik esan. Esan nahi nuen, sorreran izan ezik, eta Irrati-Telebistaren estatutueta izan ezik, gure ereduak espainola izan dela, Espainiako irritati-telebistaren ereduari begiratu diogula, lehiakide ditugun arrakasta audientziak neurtzen baitu. Telebista publikoaz ari gara, eta behar batzuk zaindu behar ditugu, hala nola, generoa, hizkuntza, xenofobia, arrazakeria, parekidetasuna... Egia esan, konplikatu da telebista ondo egitea.

Zer iritzi duzu PISAk eman dituen emaitzei buruz?

Hezkuntzan azken urteotan murrizketak izan dira. Beste lurralde batzuetan ere bai, noski. Uste dut EAEko irakasleak urte luzeetan oso gaizki tratatuak izan direla, soldatak izoztu zaizkie, Patxi Lopez lehen-dakariaren garaian, hiru eguneko bajak hartzen zituztenei ez zitzaient ordaintzen. Horretaz beste, Eskolak ez ditu genero, hizkuntza edota arrazakeria arazoak konponduko. Matematika ere erakutsi behar du. Sekulako lan karga jartzen ari zaio eskolari. Beraz, eskolan hezi bai, baina familian ere bai, baita hedabideetan ere.

Bestalde, LOMCE oso murriztailea izan da, Euskal Herrian behar ez dugun erreforma ekarri digu, ikasle, irakasle eta ordezkari sindikalak tentsio izugarrian jarri ditu. Urte aztoragarriak eta borrokatuak izan dira. Euskal Herrian ez genuen erreforma hori behar. Horiek horrela izanda ere, Nafarroako emaitzak bestelakoak izan dira, Euskal Herriaz ari gara, bada hara begiratu dezagun. Zer egin dute, guk egin ez duguna? PISAk hala ere, gauza batzuk baloratzen ditu eta beste batzuk ez. EAEko barne produktu gordinaren arabera, ez dagokigun emaitza da. Arlo hau ere desespainoldu behar dugu, Espainian ohiko izaten baita gobernu bakoitzak lege berri bat egitea. Euskal hezkuntzak lege propioa behar du, egoera hau gainditzera eramango gaituen urratsak emateko. Hau ez da arazo isolatua, gainerako arlo politikoei lotuta dago. Hezkuntza funtsezkoa da, herri burujabe izatera belaunaldi berriek eramango gaituzte. Gu prest gaude akordioa lortzeko. EH Bilduk akordio zabalak aipatu dituenean, haxe da halakoa behar duena. Ordea, tamalez, hauteskunde kanpainan PPK eta PSEk zabaldutako mezua kaltegarria izan zen. Badakigu gazte asko ez dela euskararen mundura etorri, baina ez dezaten euskararen kontra egin, oster, ekar ditzagun ezagutu dezaten euskaraz zein ondo bizi garen, euskaraz ere disfrutatu daiteke eta. Jende asko ez da jabetzen galtzen duenaz, euskara ezagutzen ez duelako.

Eta pazientzia demokratikoa. Euskal herritarren kultura politiko berria pazientzia historikoa eta demokratikoa izatea da, antza.

Bueno, biak izan ditugu eta beharko ditugu. Lau urte hauetan herritarrei esan behar diegu, gutxienez politika berri bat martxan jarri dugula. Ez da legegaitza honetan gauzatuko, baina estatutu berrian erabakitzeke eskubidea sartzen bada, lorpen handia izango da. Gu ez gaude hemen betiko, gero, berriz hauta gaitzaketek edo ez.

Legebiltzarrean estatutu berria onartu eta Madrilera joan zen Ibarretxe lehendakaria. Ezberdina izango al da oraingoan? Gure ustez, Madrilera negoziatzera

joan aurretik herritarren babesa jaso beharko genuke. Legebiltzar honetan adostutakoa herritarrek babestua bada, askoz ere indar gehiagorekin joango gara Madrilera. Nik ez dut esperantza galdu nahi abiatu baino lehen, legealdia garrantzitsua da, urratsak emango ditugu. Urratsez urrats joan behar dugu.

ETA oldar gogorrean ari zenean, indarkeriarik gabe dena posible zela zioten batzuek Madril, independentzia barne. ETAk jarduera utzi ostean, trantsizio moduko bat izango zela aipatu izan zen. Historia ez ote da berriz ere errepikatzen ari? Horrela bada, zer egin dezake EH Bilduk? Independentzia aldarrikatzea posiblea

da, baina egikaritzea ez. Hori horrela da. Espainiako Estatuak lurraldetasunean arazo izugarria dauka, bai Kataluniarekin bai Euskal Herriarekin. Nik ez dut sinesten Espainiak aldaketa konstituzionala egin dezakeenik. Espainiaren deficit demokratikoa begibistakoa da, Espainiak argi eta garbi esan du bakarria eta osoa dela, beraz alde horretatik ez da ezer berririk etorriko, PPK agindu edo ez beste batek agindu ere.

Horiek horrela...

Uneon, Estatutu berria lortu daitekeela uste dut, 35 urte ondoren bada garaia, erabakitzeke eskubidea bertan jasota, noski. ■

ANTI HIRIA EDO BIZITZA

**Ivan Miró**

@ivan_sants

ARGAZKIA: DALE GIANCONO

Urbanista eta historialari ipar amerikar Lewis Mumfordek, *The City in History* (1961) kolosalaren autoreak, hazten ari zen klase ertain soldatapeko eta zuria-ri aterpe emateko 1950. hamarkadan AEBen luze zabalean zabaltzen ari ziren eremu suburbano batzuen hazkundera karakterizatu zuen. Ez ziren hiri berriak, ezta aurretik sortutakoen zabal-kundera ere, urbanizazio mota berria baizik, lurraldean zehar dispersatua eta zabaldua, azpiegitura handien bidez konektatuta, baina zentro urbanorik eta partekatutako nortasunik gabe.

Mumfordentzat –eta bere jarraitzaileentzat, Murray Bookchin gisa– *mega-polis* berri hura disoziazio sozialaren, are psikikoaren, aldeko indar aktibo gisa zetorren gora, hiria proiektu kultural gisa ukatuz, espazio publikoa eta bizitza sozialeko elkargune eta gatazka lekuak disolbatuz. Masak bizitzeko aldiri berri hauek *anti-hiriak* ziren Mumfordentzat, ezaugarri urbano tipikorik gabeko urbanizazioak. Desberdintasunik gabeko bizitzak eusteko sortu zituzten, bizitza axolagabeak. Inolako komunitate zein elkarte ekoizteko ezgauzak, hiria ekoizteko ezgai.

Hainbat hamarkada geroago, Marc Augé antropologoak *ez-lekua* kontzeptua proposatu zuen posmodernitatearen kategoria espazial gisa. *Ez-lekuak* ziren batetik bestera zihoazen edo zai zeuden pertsonen elkarguneak, aireportuetako edo metro geltokietako aldagelak, supermerkatuetako edo kutxazain automatikoen ilarak; erabiltzaileek espazioarekin harreman kontraktualak mantentzen dituzten lekuak, baina be-





ren bakardade merkantilak bizitzeko ezgaitzen dituen, ezin espazioa leku bilatu.

Egun, aurrera salto beldugarria emateko lanean ari da produkzio metropolitano ereduaren eboluzioa eta kategoria horiek *–anti-hiria, ez-lekuak–* ertzetatik erdigunera desplazatzen ari dira. Gertutasun kezkaraz ari dira materializatzen.

Espazioaren totalizazio kapitalista

Hain zuzen ere, *anti-hiria* jada ez da hirien kanpoaldean gertatzen, hauek zulatzen, lehortzen, beren barnetik husten ari da. *Ez-lekuak* terminal aseptikoetatik, hotel txepeletatik eta geltokietatik, orain arte jendetsu eta biziak izan diren gure hirietako auzo herrikoi zaharren bihotzetara mugitzen ari dira.

Hotel eta apartamentu turistikoak *–Hotel eta apartamentu turistikoak – masan–* ordezkatzeko ari dira bizitzeko eraikitako etxebizitzak: hauek *etxeak* ziren. Biztanlego flotatzaile horren zerbitzura dauden aktibitate ekonomiko berriak hirien egitura produktiboa eraldatzen ari dira: langilego ikusezina duten garbitegiak, gurpildun maletak versus erosketa gurdiak, lau euro balio duten kafeak, ingelesezko arbelak, *wifi and cookies home made*.

Borroka kolektiboei eta egunerokotasunei esker egituratutako auzoetatik bizilagunak botatzen ari dira; ultraprekariatetaren langile tenporal gisa onartuko dituzte soilik, eta hori, zorte ona badute. “Espazioarekin harreman kontraktuala” soilik mantentzen duten erabiltzaileek, beren inguruarekin indiferente diren joan etorri eta aktibitateekin ordezkatzeko dituzte beren bizitzak eta lanak. Auzo popularrak ezabatzen ari da disoziazio sozial indar aktibo bat, komunitatea eta asoziazioa uxatzen du. Hotel erraldoi bat bihurtzeko arriskua du hiri osoak, aireportu erraldoi bat, vending makina bat, terminal amaigabe bat, inbertsoreentzako monopoly jolas bat.

Anti-hiriak eta ez-lekuak, ordea, ez dira aleatorioki sortutako errealitatea. Ekonomia zehatz baten ondorio dira, espazioaren produkzio kapitalista zehatz baten emaitza. *Akumulazio turistiko-inmobiliarioaren erregimen* berrian orokortzen den baldintza espaziala dira, izan ere; krisi osteko berregituratze sistemikoan, “turismoak adreilua salbatu”

duen horretan, lur urbanoaren praktika errentatzaile eta espekulatiboak areagotzeko medio bilakatu dira. Bertan, kapital inmobiliario eta finantzarioak (eta teknologikoak, *Airbnb* madarikatua!) erabakitzen ditu inbertsioen norabidea, eta errentaren egitura eta banaketa.

Bartzelonan finkatutako talde inbertsore frantziar bateko presidenteak ondorengo baieztatu zuen: “Lehen eta bigarren bitoki izateko pentsatutako etxebizitza stock ikaragarria dago. Merkatuak ezin ditu xurgatu eta guk apartamentu bilakatu ditugu”. Errentabilitate egarri, akumulazio erregimen berri honek espazio urbanoaren totalizazio kapitalista bilatzen du.

Borroka ziklo berria kolektibizazio urbanoaren alde

Anti-hiriei eta ez-lekuei aurre egiteko, berriz ere hiria eta bizitza posible egin ahal izateko, eraso egin behar zaio aurrez aurre akumulazio turistiko-inmobiliarioaren erregimenari. Beharrezkoa da aliantza bat sortzea herri mugimenduen, mugimendu sozioekonomikoen, feministen eta ekologisten artean, egun bizi dugun klase borroka urbano hauek sektoreak defendatzeko dituen kapital turistiko-inmobiliarioaren ofentsibaren aurrean. Bizilagunen elkartek, ekipamendu komunitarioak, ekonomia sozial eraldatzaileko ekimenak, auzo eta elkar laguntza sareak, paperik gabeko kolektiboak, ultraprekariatetaren aurkako antolaketa eta sindikalismo sozial berriak. Elkar batu eta zabaldu egin behar dugu etxebizitzaren aurkako mugimenduak abiatutako bidea, mobilizazio bateratzaileak aktibatu, espazio berriak konkistatu eta udalak eta gobernu autonomikoak bultzatu berjabetze sozial urbanoaren zerbitzura egon daitezen.

Horietan bizi diren pertsonen amets eta beharren alaba izango diren hiriak nahi baditugu, bizitzaren erreproduzioaren zerbitzura egongo diren hiriak, *lurzoruaren jabetzaren kolektibizazio* antz pausoak eman behar ditugu aukera posible guztien bidez: nazionalizatzeak, municipalizatzeak, kooperatibizatzeak, sozializatzeak, lana, herri kontrola. Geroz eta argiago dago soilik berjabetze eta kolektibizatze urbanoei esker eraiki ahal izango ditugula hiri kooperatibo, solidario eta feministak.

Bihar berandu izango da. ■

ZORRAREN AUDITORETZA

KONTROL PUBLIKOA ETA HERRITARREN AHALDUNTZEA MADRILEN

Urtebete da Madrilgo zorraren eta politika publikoen inguruko auditoretzak egiten hasi zirela. Bi bide independente dituzte: Madrilgo Udalak adituen batzorde bat jarri du martxan, azken hamarkadako kudeaketa ikuskatzeko. Eta herritarren lantaldeak sortu dira hiri barrutietan, PACD Zorraren Herri Auditoretzarako Plataformak sustatuta.



Sara Arruabarrena Azkarate

@s8ara

ARGAZKIA: GUILLERMO LILLO

2015eko maiatzean Ahora Madrid herri hautagaitza Madrilgo Udal gobernura iritsi zen PSOEn babesarekin, han 24 urte zeramatzan PPren agintaldiari amaiera emanez. Hauteskunde kanpaina programa parte-hartzailea jarri zuen abian Manuela Carmenaren taldeak eta herri auditoretza izan zen babes gehien jaso zuen proposamenetako bat. Zorraren eta Politika Publikoen Auditoretzaren Zuzendariordetza Nagusia sortu zuen Udalera iritsi zenean. 2016ko maiatzean, Zorraren eta Politika Publikoen Herri Auditoretzaren Aholkularitza Batzordea osatu zen.

Bederatzi adituk osatzen dute batzordea eta Complutense unibertsitatean Ekonomia Aplikatuko irakasle den Bibiana Medialdea da koordinatzailea: “Giroan dago herri auditoretzaren aldarrikapena. Udal gobernuak herritarren eskaerari jarraituz sortu ditu auditoretzarako organoak, nahiz eta gu egiten ari garenaren antzeko adibide gutxi dauden, baita nazioartean ere”. Medialdea Udaleko Ekonomia sailak kontratatatu du, epe-mugarik gabe, baina batzordeko gainontzeko kideen lana borondatezkoa da.

Udalaren osoko bilkuran onartu zen auditoretza egitea, PSOEn eta Ciudadanosen babesarekin. “Zorraren eta politika publikoen herri udal auditoretza deitzen diogu, nahiz eta kontraesankorra dirudien: udal auditoretza da, Udal delako egiten ari dena. Are gehiago, herritarrek parte-hartu nahi ez balute, auditoretza egiteko ardura izaten jarraituko luke Udalak. Baina ez zaigu zorra bakarrik interesatzen, herritarrengan eragin nabarmena izan duten udal interbentzioak ere aztertzen ari gara”.

2003tik 2015era bitartean Madrilgo udal gobernuen kudeaketa nolakoa izan den azaleratzeko beharrezkoak diren txostenak nori eta zertarako eskatuko zaizkien erabakitzen du Aholkularitza Batzordeak: “Auditoretza herritarrek duten bokazio demokratiko, sakon eta erradikal batekin loturik doa, gertatzen ari denaren berri izateko nahiarekin. Kontzeptu zabaltzat dugu guk: herritarrengan eragin negatiboa izan duten zantzuak dituzten udal politika eta esku-hartzeak aztertzen ari gara, den-dena, zorra ez ezik, enpleguan eta zerga bilketan eragina izan duten politikak ikuskatzen ari gara, baita gizarte-bazter-

ketan, genero desberdintasunean eta ingurumenean eragina izan dutenak ere”.

Ondorioak argitaratzeko asko falta da eta zuhur azaldu da Medialdea ikerketak azaleratu dezakeen zorraren legitimitasunaren inguruan: “Zorra legitimoa den ala ez esatea zerbait morala eta politikoa da. Hori herritarrek egin behar dute, euren eskubidea da. Adituen batzorde batek ezin du ondorioztatu zorra legez kanpokoa dela, ezta Udalak ere”.

Madrilgo Udalak duen zorra handia da -5.000 milioi eurokoa 2016ko maiatzean; 871 milioi amortizatu dira dagoeneko udal gobernu berriarekin- baina ez da izan auditoretza egiteko arrazoi nagusia. Medialdeak garbi utzi du Udal ez dagoela zorraren krisi batean murgildurik, ordainketei aurre egiteko gai delako. “Hala ere, Udalak baliabideak nola kudeatu dituen aztertuko bagenu, ikusiko genuke ez direla errespetatu irizpide etiko eta politikoak, ezta giza eskubideak ere”.

Herritarrek egindako auditoretza

“Madrilgo udal gobernuko hainbat sailetan beldurra dutela dirudi, auditoretzak herritarren parte-hartze handia izango





Usera eta Arganzuela auzo madrildar umiletan herritarrak euren kabuz hasi dira PPren udalak utzitako zorra auditatzen.

duen ikusteke dagoelako. Zorraren zati batek legitimotasunik ez duela onartzen bada, zor hori ez ordaintzeko aukera dago. Udala egiten ari denari ez nioke herri audiotoretza deituko, herritarrek ez baitute parte hartu, orain arte behintzat. Guk ez dugu nahi audiotoretza herritarra izatea erreferenduma egon delako, prozesuan herritarrak ahaldundu direlako baizik". Alfredo Sánchez PACD Zorraren Herri Audiotoretzarako Plataformako kidea da. Ahora Madrid Udalera iritsi eta hila-betera aurkeztu zioten audiotoretzarako proposamena Ekonomia Sailari, eta hainbat puntu aintzat hartu dituzten arren –adituen batzordea sortzea eta finantza kontuak soilik kontuan ez izatea– herritarren parte-hartzea alde batera utzi eta Udalak alor teknikoak soilik landuko duela uste dute. Horregatik, Madrilgo hiri barrutietan audiotoretzak sustatzen ari dira.

Udalari aurkeztutako metodologia berrantolatatu dute eta Useran eta Arganzuelan sortu diren audiotoretzarako lantaldeei babesa eskaintzen die PACDek –helburua audiotoretza prozesua Madrilgo beste hermeretzi hiri barrutietara zabaltzea da–. Lantaldeetako kide gehienak bertako bizilagunak dira

» **ALFREDO SÁNCHEZ (PACD):**
“Guk ez dugu nahi audiotoretza herritarra izatea erreferenduma egon delako, prozesuan herritarrak ahaldundu direlako baizik”

eta autonomia osoz aritzen dira; plataformak luzaturiko lan metodologia nola erabili euren kabuz erabakitzen dute.

“Saiatu gara prozesua sinplifikatzen, ahalik eta jende gehienak parte-hartu dezan. Egia da komenigarria dela kontabilitateaz edo aurrekontuez zerbait dakien norbait izatea, baina bizilagunek dute garrantzi gehien, dirua zertan gastatzen den ikusten dutelako. Useran, kultur etxeen kudeaketa auditatzen hasi dira eta begiratzen dute zein ikastaro eskaintzen den, zeini egiten dion mesede... Hori jendeak ikusi egiten du, ez da aditua izan behar”. Garbiketa zerbitzuaren kontratuak ere hasi dira auditatzen.

“Hitzaldi txiki batez bizilagunei audiotoretza zer den azaltzen diegu, jakin dezaten ez dela soilik zati ekonomikoa ikuskatzea. Ondoren, fitxa batzuk eskaintzen dizkiegu, esan dezaten auzoan egindako zein inbertsiok biltzen dituen ez-legitimo izateko zantzuak. Adibidez, Useran, Caja Mágica auditatzen hasi dira. Madrilan antolatu nahi zituzten Olinpiar Jokoetarako eraiki zen, eta orain hutsik dago, Madrilgo Open Tenisa soilik antolatzen da bertan, urtean bi astez. Azken urtean enpresa pribatu bat azpikontratatu da eta ordaindu egin behar da zerbitzuarengatik. Bestalde, Arganzuelan fruta eta barazkien azokaren kudeaketa auditatzen hasi dira. Eraikina hutsik dago eta 200.000 eurotik gorako gastua izan du 2007tik hona”.

Asanbladan erabakitzen dute bizilagunek zein kasu auditatuko duten, ezin baitute dena landu –Userako lantaldea hamar kidek osatzen dute, gutxi gora-behera; antzeko zerbait Arganzuelan–. Hurrengo pausoa Udalarik informazioa eskatzea da, Gardentasun Atariaren bidez. Hain justu, zerbitzu horren eragin-kortasun falta da aurrera egiteko oztopo nagusia, bizilagunek datuak eskuratze-ko asko itxaron behar baitute eta askotan informazioa ez baita egokia izaten.

Behin informazioa lortuta, aztertutakoa legitimoa den ala ez erabakitzen dute herritarrek. PACDek hainbat irizpide ezarri ditu: aurreikusitako gastu kopurua ehuneko handi batean gainditzen duten proiektuak ilegitimotzat jo daitezke haien esanetan, baita garraio publikoa beharrean autoaren erabilera sustatzen duten proiektuak edo enpresa batek emakume eta gizonen arteko desberdintasunak areagotzen dituenen ere. Edonola, lantaldeek badituzte haiek ezarritako irizpideak.

Auditaturiko gai bakoitzaren ondorioak aterata –Madrid Audita Madrid webgunean dago bildutako informazioa–, hiri barrutiarren txosten orokorra osatu nahi dute lantaldeek. Halaber, egindako lana Udalak egindakoarekin elkartu nahi dute, haiek ere emaitzak argitaratzeko. Emaitzen gaineko erreferenduma baino, helburua gaia- ren inguruan kontzientziatzea dela dio Sánchezek, “herritarrek jakin dezaten aurrekontua guztion erantzukizuna dela eta ez gutxi batzuek kudeatzen dituzten kontuak”. ■

Asier Lafuente, Agurainen 75 ordu euskaraz

“BESTELAKO ELKARBIZITZA NAHI BADUGU, ERDALDUNEI FUNTZIO BAT EMAN BEHAR ZAIE”

Aguraindarrek bazuten haien 15 ordu euskaraz jaia, baina aurten beste zerbait egitea pentsatu dute. Ez dute jairik egin, azaroaren 8tik 11ra, astegun buruzuriz, egunerokoan, euskaraz egiten saiatu dira. Euskaldunak aktibatu dituzte, erdaldunei egoera berrira egokitzeaz azalpenak eman dizkiete, eta erdi lokartuta zegoen herriko euskalgintza piztu da. Asier Lafuente 75 ordu euskaraz ekimeneko kidea elkarrizketatu dugu.



Onintza Irureta Azkune

@oirureta

ARGAZKIA: 75 ORDU EUSKARAZ

Zergatik egin duzue 75 ordu euskaraz egitasmoa?

Inertzia bat apurtzeko. Otsailaren 23an elkartu ginen, bi urtean behin jai-al-darrikapen moduko bat egiten delako Agurainen, 15 ordu euskaraz. Betiko formatuko jaia da, egun osoko egitaraua, bazkaria kalean, eta abar. Otsailean elkartu ginenean esan genuen zerbait gehiago behar genuela herrian, ondorio bat utziko zuen zerbait.

2015ean Lutxo Egiak egindako performancea aipatu genuen, baita Donostiako Egia auzoan ere egiten ari zirena. Hori proposatu genuen bilera horretan eta hurrengo bilerara proposamen zehatzagoa eraman genuen. Zalantza egiten genuen, zenbat izan gintezkeen hizkuntza jokaera harekin Agurainen hainbat egunez? Bileran hogeitaz lagun geunden eta hasi ginen kalkulatzeko: bakoitzak bost lortzen baditu ehun izan gaitezke. Konbentzimendu osoz, baina zalantza askorekin abiatu ginen.

Zein zen helburua?

Euskara beharrezkoa egitea, eta horretarako euskaldunak ahaldundu eta ak-

tibatu behar ziren, ohitura linguistikoak aldatu. Baina ohiturak ez dira aldatzen momentu batetik bestera, horregatik sei hilabeteko epea ipini genuen, azaroan egiteko. Lau egun, asteartetik ostiralera, jai egunik ez, lortu nahi genuen esparrua egunerokoa zen.

Nahiz eta helburua ez ziren erdaldunak, Agurain herri erdalduna da eta beharrezkoa ikusten genuen herria prestatzea, erdaldunak egokitze egoerak lortzea. Kolektibo, establezimendu eta erakunde bitartez lortu nahi genuen adostasun sozial hori.

Bi kanpaina egin genituen, bata, *Nik 75 eta 283 konpromiso lortu genituen*. Horiek lau egunetan edonon eta edonorekin euskaraz egin dute. Beste kanpaina *Guk 75 izan zen*. Bisitak egin genizkien erakunde, establezimendu eta kolektiboek eta konpromiso batzuk eskatu genizkien. Dendari eta tabernari adibidez, eskatu genien elkarrizketa elebidunak izatea, eskatu genien euskaraz egiten zieten ulertzen saiatzea, ez esatea erdarara pasatzeko. Euskararen alde egotea besteari euskaraz hitz egiteko aukera ematea da.

Mezu urratzailea dela diozu.

Gu konbentzituta gaude bestelako elkARBIZITZA nahi badugu Euskal Herrian

erdaldunei funtzio bat eman behar zaie-la eta euskararen alde egotea ez da nahikoa. Ez du balio esateak “ez dakit euskaraz eta erdaraz egitea eskatzen dizut”. Errealitatea da kolektiboek, establezimenduek... oso ondo hartu dutela eta lortu dugula adostasun sozial bat. Hitz potolo horiek, Eusko Jaurlaritzak berak ere erabiltzen ditu, baina zertan gauzatzeko da? Gure ustez horretan gauzatu behar da, erdaldunen jokaeretan, euskaraz bagoaz haiengana ez diezagutela eskatu erdarara pasatzea.

Parte-hartzaileen artean galdeketa egin duzue. Zer erantzun dute?

Kokatzeko esan dezagun Agurainek 5.000 biztanle dituela, 17 urtetik gorakoak 3.600. 17 urtetik gorako euskaldunak 800. Kanpaina euskaldun aktibo izan dira 283. Beraz, 500 inguru euskaldun pasibo ditugu herrian. 283 sinatzaileetatik 201 lagunek erantzun dute galdeketa. Lehenengo galdera zen ea normalean baino ahalegin handiagoa egin duten euskara erabiltzeko. %86k esan du baietz. Gero galdetu diegu ea herrian antzeman duten beste euskaldunen aktibazioa eta %65ak esan du baietz. Beste galdera bat zen ea non irabazi dituzten euskarazko harreman berriak. Horrela erantzun dute: dendari,



Ezkerretik eskuinera: Asier Lafuente, Ainhoa Arbaiza eta Maiteder Sasieta. "Hiru mezu eman nahi genituen: euskara beharrezkoa egin, euskaldunen jokaera aktiboak dira motorrak, eta beste guztiak egokituko dira. Pello Jauregiri hartutako mezuak dira. Zalantza izan daiteke ea nola egokitzen diren erdaldunak. Batzuetan erdaldunen eta euskaldunen artean amildegia dagoela pentsatzen dugu, baina hurbiletik proposatzen duzunean, hori da guk egin duguna, funtzionatzen du. Harrigarria da erdaldunen kolektiboak nola moldatu diren Agurainen".

tabernari edo erakundeekin %51k; eza-gunekin %34k; kuadrillakoeikin %22k; etxekoekin %17k; ezezagunekin %17k; lankideekin %9k; eta %19k ez du harremanik irabazi.

Nabarmentzekoa da dendari eta erakundeekin eman diren harreman berrien ehunekoa. Guk batez ere eremu horretan egin dugu lan. Ikasi duguna da antolakuntzatik arlo bat lantzen baldin bada harreman berriak sortzen direla.

Hurrengo galderan nolako ahalegina egin duten galdetu diegu. Sei hilabetez portaera berri batzuk proposatu dizkiegu eta jakin nahi genuen zeintzuk

erabili dituzten. Erantzunak ikusita konturatu gara badaudela bi aktibazio maila. "Lehen hitza euskaraz" portaera %80k erabili du, baina beste portaera guztietan %20 inguruan gabiltza. Adibidez, "guztiekin euskaraz egin dut" %20; "erdaraz erantzuten bazidaten nik euskaraz jarraitzen nuen" %26; "nahiz eta euskaraz ez ulertu saiatu naiz keinu bidez adierazten" %20; "euskaraz egitea adostu dugu" %24.

Azken galderaren erantzuna guretzat pozgarria izan zen. Galdetu genien ea prest zeuden jarraitzeko portaera berriekin. %87k erantzun du baietz. Gu-

retzat lau egunotako helburuetako bat zen, portaera berriak zabaldu ahal izateko jendea ahalduntzea, gero horri jarraipena emateko.

Egitasmoa antolatzeke talde heterogeneoa elkartu zarete.

Otsailaren 23an kolektiboetako ordezkariak etorri ziren jai bat antolatzeke asmoz. Baina bilera hartan nola beste egitasmo bat proposatu zen, norbana-koak elkartuta abiatu ginen. Agurainen Olbea euskara elkarte dago, eta nahiz eta 75 ordu euskaraz taldean horko batzuek parte hartu, ez dugu funtzionatu Olbea euskara elkarte bezala. Ekimenak herriko euskalgintza aktibatzeke balio izan du. Ez geunden oso aktibo.

Bigarren pauso bat eman behar badugu, erabaki behar dugu nola funtzionatuko dugun; Olbea bezala, horrek ekartzen duen militantziaren konpromisoarekin edo ea aurkitzen dugun halako formula bat zibismoarekin gehiago lotuta dagoena. Jendeak ez du lotu nahi bizitza osorako egitasmo batera. Harritu ginen zenbat jende hurbildu zen halako gauza bat proposatuta. Aurrera begira ere formula egokia izan daiteke: egitasmoak hasiera eta bukaera dauzka, jendea aldatzen joan daiteke.

Euskaldunei ez ezik erakunde publikoei ere dei egiten diezue.

Kontziente gara egin dugunarekin erantzukizun gurtia euskaldunengan, euskaldun aktibotengan, ipini dugula. Haiei eskatu diegu urratzaileak izatea, motorra izatea, beharra sortzea. Uste dugu orain erakundeei eskatu behar diegula sortu den egoera berri horri, elkarbizitza berri horri, eustea. Giza eta ekonomia baliabideak ipini behar dituzte. Hasi gara alderdi politikoekin elkartzan, EAJrekin eta EH Bildurekin. Balorazioa transmititu nahi diegu, baliabide gehiago eta politika ausartagoak egiteko eskatu nahi diegu. Erakundeak busti behar dira.

Udala eta aldundia, haiek ere hasi behar dira pedagogia soziala egiten. Guk egin dugu, gomendioak etengabe eman ditugu euskaldunak aktibatzeke eta erdaldunak egokitu ahal izateko. Momentu honetan instituzioek ez dute egiten, pedagogia asko egiten dute beste arlotan, ekologian, generoan, kontsumoan, trafikoan, baina hizkuntza ohituretan ez. Hor ere hasi behar dute. ■

Ibon Agudo, buruko isuria izan zuen 2010ean

“ANTZERKIAK IZUGARRI LAGUNDU NAU”

“Gordetzen den oro galtzen da, usteltzen da, itzaltzen da. Ematen den oro hazten da”. Mikel Markez abeslariaren hitzekin definitu du Ibon Agudok bere garapen pertsonala. Duela sei urte buruko isuria izan zuen Agudok. Gaur, gorputzaren kontrola hartuta, gaitasunak esploratzen eta esplotatzen dabil.



Ainhoa Mariezkurrena Etxabe
@xorginkeiak

2010eko otsailaren 18a. Goizeko 8:45. Hala hasi du Agudok kontakizuna. “Seme-alabekin nengoen ikastolako autobusaren zain. Gaizki sentitzen hasi nintzen eta fuerte heldu nituen June eta Zuhaitzen eskuak. Ospitalean agertu nintzen ondoren. Zorionez ez dut tartekoa gogoratzen”, azaldu digu. Bi ebakuntza egin zizkieten. Lehenengoan itsua geratu zela kontatu digu eta hori ere “zorionez” ez duela gogoratzen. Bigarrenarekin, ordea, bista osorik berreskuratu zuen ia, eskuineko begiaren izkina batean izan ezik.

Agudok bizitza normala egiten du. Ez du soldatapeko lanik, desgaitasuna dela-eta, “baina lan egiten dut”, dio. Egutero etxeko lanez arduratzen da, baita seme-alabez ere. Laguntza ekonomikoa jasotzen du, baina proba bat pasa behar du bi urtean behin. “Gaizki zaudela demostratu behar izatea da zailena, zure buruari egutero mezu positiboak bidali nahi dizkiozunean”, adierazi digu. Izan ere, iaz, laguntza ekonomikoa erdira murriztu nahi izan zioten, txostenean “laguntzarekin, baina lan egiteko gai” zela jaso zutelako: “Azterketa horretan gal-



‘Kupela clown’ bakarriketa sortu du Ibon Agudok, antzerkiak ekarri dizkion onurak bultzatuta. Berarekin harremanetan jartzeko: ibonagudo@gmail.com.

dera orokorrak egin zizkidaten; liburu batzuen egileak nortzuk ziren eta horrelakoak. Erantzunak banekizkien. Baina ezaugarri esanguratsuenetako bat ez zuten kontuan hartu, epilektikoa izatea alegia”. Ebaluatzen duen medikuak osasun interesak izateaz gain ekonomikoak biltzen dituela pentsatzen du: “Hori ulertu nuenetik beste jarrera batekin joaten naiz, zerbait defendatzera. Zaila da egia den zerbait defendatu behar izatea”. Agudok epaitegira eraman zuen kasu bat; irabazi egin zuela kontatu digu.

Otsaileko egun hartan buruko zaina hautsi izana ez zen samurra izan, kontatu digunez. Idazten eta irakurtzen ikasi behar izan du berriro, kaleen noranzkoak ere bai... Baina urtetik urtera gauza gehiago egiteko gai dela azpimarratu du, eta hoberantz egitea badagoela nabarmendu: “Nire egoera berean dagoenak sinetsi dezala: hobetzen da”. Gizarteari, orokorrean, beldurra galdu eta aurreiritziak alboratzeko eskatzen dio, bizkarrik ez emateko, berari inoiz egin dioten moduan: “Argi dut ez dudala zertan aritu beti hau kontatzen. Ezkutatu ez, baina azpimarratu ere ez”.

Izan ere, Agudoren pertsonalitatearen ezaugarri nabarmenena ez da hori, sormena baizik. Duela hiru urte antzerkian hasi zen eta sozializatzeak eta aktore moduan aritzeak asko lagundu diola esan digu: “Jende aurrean jarri eta ikusezin izatetik denak begira izatera. Txalo zaparrada jasotzera. Eta ez penagatik, egingakoa gustuko izan dutelako baizik”.

Antzerkirako bideak, joan eta etorriak eta bata eta bestearekin elkartzeak herriko saltsa guztietan nahastera bultzatu dute. Besteak beste, herriko zaharren egoitzan aritzen da astean behin euskara sustatzeko antzerki jarduerak dinamizatzen. Obra bat sortu zuten iaz, hainbat lekutan aurkeztu dutena. Agudok ideiak bota eta gidoiak egiten ditu, baita zuzendari lanak ere. Bestalde, gidoia eta pertsonaia bat landu ditu bere kabuz eta bakarriketa bat sortu: *Kupela Clown*. Edozein lekutan antzezteko prest eta gogotsu azaldu digu, eta gonbitak jasotzeko “desiatzen” dagoela: “Sormenak eta irudimena lantzeak egiten nau zoriontsu. Errezeta berri bat asmatu, marraztu, umorea egin, idatzi, azaldu... Finean, norberaren koloreak ateratzea”. ■

CHERBOURG, NAFARROAKO KOSTALDEA



Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazustabarrena

Cherbourg, 1300. Frantziako Filipe IV.a Ederrak (1268-1313) hiria gotortzea erabaki zuen, Calaisen ondoren Ingalaterrako kostaldetik gertuen dagoen lurmuturra izanik, Frantzia eta Ingalaterraren arteko gatazketan garrantzi handiko gune estrategikoa baitzen.

Ederki gotortu ere, Ehun Urteko Gerra osoan (1337-1453) ez baitzuten hiria behin ere indarrez hartu. Esaterako, Ingalaterrako Eduardo III.aren soldaduen erasoari aurre egin zion hiriak 1346an. Jean Froissart (c. 1337–c. 1405) idazle eta historialariaren iritziz, Cherbourgek munduko gaztelurik sendoenetakoa zen. Baina horrek ez du esan nahi gerra luzean hiriak jabe bakarra izan zuenik; 116 urte horietan Cherbourgen jurisdikzioa sei aldiz aldatu zen, salerosketak eta itunak medio. Eta ez zen frantziarren eta ingelesen eskuetan soilik egon, Nafarroako Erresumaren parte ere izan zen Iruñetik ia 1.000 kilometrora dagoen portua.

1353an eskuratu zuen Nafarroako Erresumak Cherbourg lehenengoz. Frantziako errege Joan II.a Zintzoak "Cherbourgeko jaurerri eta hiribildua" Joana Valoiskoa alabari eman zion ez-konsari, Nafarroako errege Karlos II.a Evreuxkoarekin (1332-1387) ezkondu zenean. Frantziarren oparia ingeles zerbitzura jartzea erabaki zuen handik hiru urtera Filipe Evreuxkoa infanteak,




Karlos III.a Noblea eta Leonor Trastamarakoa Nafarroako errege-erreginen mausoleoa, Iruñeko katedralean. Karlos III.ak 1393an berreskuratu zuen Cherbourg Nafarroarentzat, eta hamaika urte geroago 200.000 libarren truke saldu.

baina ofizialki nafar lurraldea izango zen 1378ra arte. Urte hartan, Karlos V.a Frantziakoak hiria setiatu zuen, Nafarroako erregeak Normandian zeuzkan gainerako lurraldeekin batera. Nafarrek setioari eutsi zioten, baina posizioa ahulduta, Cherbourg hiru urtez errentan Rikardo II.a Ingalaterrakoari uztea erabaki zuten. Hiru urteak joanda, Ingalaterrako erregeak ez zuen gune estrategikoa itzuli. Karlos II.a Gaiztoaren ahale-

ginak alferrikakoak izan ziren, eta haren seme Karlos III.ak (1361-1425) lortu zuen hiria berreskuratzea, 1393an.

Cherbourg Nafarroako Erresumaren parte izan zen beste hamaika urtez. Orduan, setioek eta erasoek luzaroan lortu ez zutena diruak lortu zuen. 1404ko ekainaren 9an sinatutako hitzarmenaren bidez, Karlos III.ak 200.000 libarren truke saldu zion Cherbourg Karlos VI.a Frantziakoari. ■



PUBLINEWA GUATEMALA

Amerikako lehen errepide sarea

Cuenca Mirador proiektu arkeologikoko ikerlariak Amerikako lehen errepide sarea maiek eraiki zutela jakin berri dute. Baina lan arkeologikoak ez du oraingoan indusketarik eskatu. LIDAR izeneko gailu bat erabili dute horretarako, laserra baliatzen duen radar modukoa. Horren bidez, Petén oihanean (Guatemala) dagoen Mirador aztarnate-

gia arakatu dute, guztira 700 kilometro koadroko azalera. Orain arte ezagutu gabeko hainbat eraikinen arrastoak aurkitu dituzte miaketan, baina aurkikuntza nagusia 240 kilometrotik gorako errepide sarea izan da. Errepideak K.a. lehen milurtekoak dira, maien inperio aurreklasikoaren gainbehera (K.a. 150) baino lehenagokoak. ■

Orbeldi errioa



TESTUA ETA ARGAZKIAK:

Jakoba Errekondo

jakoba@bizibaratzea.eus

Mizpirak ekarri zuen itulan udazkena, baina azaroa haizeak udazkentzen du. Orain, egun-argia motzenera ekarri zigun sasoiari errematea eman eta negu-ari ere haizeak irekiko dio kereta. Hai-zeen mende bizi behar.

Udazkentzearena egun batekoa izan ohi da, niretzat. Jeneralean, haizete bategen baino gehiagok biluzten eta azal-bizitzen dituzte landareak, pixkanaka, hostoak prestatu ahala. Aurten, baina, nabarmena izan da. Garoak ebakitzeko lizentzia ekarri zuen irailetik hasi eta gaztainazituan segi, urtaro gozoa izan da; haizeak azaroa bururatu duen arte. Haize horri behar bezalako harrera egiteko, zuhaitzek, arboleek eta zuhaixkek ikaragarritzko kolore deigarritzko soinekoak jantziak zituzten. Haizea berandutzen, eta landareek, luze etsita, soinekoak aspaldiko kolore sorta ederrekin loratuta. Ufako bolada arte, haizea indarrean harrotu eta biluztea ikusgarria izan da. Haizeak jantzi zuen basoaren soinekoa. Haize guztia baso zen. Haize bat hosto. Gau osoan dantzan ibili zen hosto jendea, denak elkarren arrimuan, haize-sokan. Eta halako batean, haizea nekatu zenean, bazterretara bildu eta ezkutatu egin zen. Soinekoa bazter horietan geratu da. Hostaia orbeldu da. Orbeldi izena duen zokoa bada gure auzoko herrian, haize hotzak habia orbeletan egiten duen bazter ospela.

Bazterretatik urak bereganatu eta mugitu du orbela. Errekak, ibaiak, errioak eta itsasoak jantzi dute orduan hosto soinekoa. Gure etxepeko errioan mareak gora jo zuenean, ur gaina erabat hosto zen. Errio bat orbeldi.

Badira, haizeak haize, oraindik ere koloretako soinekoari soinean eusten diotenak. Etxetik urrutira gabe, egunero



ikusten dudana sagarrondo bat (*Malus x domestica*) aspaldiko urteetan ezagutzen dut, eta, urtetik urtera, bere egoskorkeria txalotzera geratzen naiz bere

azpian. Gehiago maite dut bere hostaia-
ren kolore dantzagatik, bere fruituen-
gatik baino. Gaur, negu, oraindik gorri-
dago. Eguna nola luzatzen den ikusten. ■

TOKIKO NEKAZARIEN AZOKEN ERAGIN EKONOMIKO ETA SOZIALA GIPUZKOAN



ERAGIN EKONOMIKOA



KONTSUMITZAILEEK AZOKETAN GASTATZEN DUTEN EURO BAKOITZEKO INGURUKO ESTABLEZIMENDUETAN ERAGIN EKONOMIKOA 0,74 € DA

AZOKETAN EGINDAKO GASTUAREN ERAGIN EKONOMIKOA	INGURUKO ESTABLEZIMENDUETAN EGINDAKO GASTUAREN ERAGIN EKONOMIKOA
Azokekin zuzenean eta zeharka erlazionaturako sektoreak kontuan hartu ditugu	
27,9 milioi euro	20,5 milioi euro
GUZTIRA ERAGIN EKONOMIKOA: 48,4 MILIOI EURO	



EKOIZLEEN PROFILAK

BASERRITAR EMAKUME BARATZEZAINAK
%57

NEKAZARI GAZTE PROFESIONALAK
%23

BIRSALTZAILEAK
%5,5

EKOIZLE EKOLOGIKOAK
%6,25


EKOIZLE EZ PROFESIONALAK
%8



ERAGIN SOZIALA




Ekoizleen azoketan saltzeko arrazoiak



1. Kalitatea %32
2. Bertokoa %26
3. Ohitura %6
4. Azokako giroa %6
5. Beste batzuk %6
6. Erosotasuna %5
7. Osasuntsua %4
8. Baserritarrekin harremana %4
9. Baserritarrei laguntzea %4
10. Prezioa %3
11. Ekologikoa %3
12. Barietatea %2



Azoken kontsumitzaile kopurua astero



AZOKAN EROSTEKO ETA EZ EROSTEKO ARRAZOIAK



1. Erosotasun eza %13
2. Ohitura falta %6
3. Beste batzuk %5
4. Ez ditut etxeko erosketak egiten %3
5. Baratzea dut %2
6. Prezioa %2
7. Ordu-tegi txarra %2
8. Ez da erakargarria %1
9. Ez du arrazoirik, ez du erantzun %64



KONTSUMITZAILEEN PROFILAK

LANGILEAK
%38

JUBILATUAK
%48

IKASLEAK
%2,5

LANGABETUAK
%11,5

TOKIKO NEKAZARIEN AZOKEN ERAGIN EKONOMIKO ETA SOZIALAREN AZTERKETA GIPUZKOAKO LURRALDEAREN ELIKADURA ESTRATEGIA BATEN EREMUAN IKERKETA, EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAK ETA GIPUZKOAKO LANDA GARAPEN ELKARTEAK LANKIDETZAN GARATUTAKOA, GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN LAGUNTZAREKIN. ESKURAGARRI URKOMEN ETA TOLOMENDIN.

Azterketa honen xehetasunez eta izango duen jarraipenaz gehiago, argia.eus-en, Garazi Zabaletak ikerketaren egileei egindako elkarrizketan.

GURE GAIK DIRA GURE BALIOAK | PARTE HARTU ETA IRABAZI SARI HAUETAKO BAT



Aste honetako nabarmendua

TOPALDIRAKO BI SARRERA

4

“Euskararen herria: zubiak eta palankak”, Topaguneak antolatutako Topaldian


Urtarrilean egingo da aurten 14. Topaldia. Euskaltzaleen Topaguneak urtero antolatzen du Topaldia jardunaldia, Euskaltzaleen Mugimenduarentzako interesekoak diren gaien gainean hausnarketa egiteko. Aurten go Topaldia bi egunekoa izango da, urtarrilaren 25 eta 26an egingo da Durangoko Landako Elkartegian, “Euskararen herria: zubiak eta palankak” titulupean.

Eragileen arteko zubigintza, lurralde arteko elkarlaneko egitasmoak eta hizkuntzaren

normalizazio prozesuko gako berriak izango dira aztergai urtarrileko Topaldian. Urtero moduan, jardunaldietan hausnarketarako ikuspegia landuko duten hizlariak izango dira batetik, eta eredu izan daitezkeen esperientziak azalduko dituzte bestetik. Hurrengo asteotan ezagutuko dira egitarauaren xehetasunak eta abenduaren bukaeran zabalduko da izena emateko aukera. ARGIAko kideen artean, Topaldian parte hartzeko bi sarrera zozketatuko ditugu.



Eragile hau hobeto ezagutzeko:



EUSKALTZALEEN TOPAGUNEA

Landako etorbidea, 4 · 48200 Durango (Bizkaia)
Tel.: 94 621 57 80
www.topagunea.eus

#euskalgintza
#kulturgintza
#euskara-elkartek

Hilabete honetako sariak

1



Aranzadi Zientzia Elkartearekin
bisita gidatua eta bazkaria
Iruñeko erakusketan
2 pertsonarentzako

2



Ipar Euskal Herriko Laborantzaren
egoera eta garapena
4 liburu

3



ARGIA 2017 Egutegia
3 egutegi

4



Euskararen herria: zubiak eta
palankak jardunaldiak
2 sarrera

Parte hartzeko: ☎ 943 371 545 | gunea@argia.eus | www.argia.eus/gunea

Eragilea bazara, zabalkunderako materiala baduzu eta zure lana ezagutarazi nahi izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan.



Nekane Txapartegi, ARGIAkoa.
Nekane Libre plataformak antolatuta,
Emakumeak eta kartzela jardunaldiak
egin ziren abenduaren 17an Asteasun.

Txaboloan ere irakurtzen da ARGIA



Itsaso Zubiria Etxeberria
@itsasozubiria

Kartzela, gai bezala, uste dut niri bezain gutxi gustatzen zaiola edonori. Baina proposamen polita bota didate ARGIAko langileek oraingoan honen inguruan. Harpidetzen kontuan murgilduta gabiltzala, errepassoa han eta hemen, oroitutara badirela zenbait helbide tamalez ezagunak zaizkigunak. Kartzelak. Eta orduantxe piztu bonbilla. Zergatik ez ezagutu ARGIA kartzelako begietatik?

Galdera asko datozkit burura horrelakoetan, eta batzuk ziurrenik kartzela bizi gabe inoiz ez ditut erantzungo. Adibidez, zer esan nahi du zure herri-tik milaka kilometrora zaudenean euskal prentsa jasotzeak? Eta hori da bizi izan ez duen batek ulertzeko zaila seguruenik. Baina horixe galdetu diot Jon Mintegiagari. Preso politiko ohia bera, kartzelan zela ARGIAko harpidedun egin zen (zuten). Lehen erantzuna izan da lasai irakurtzeko artikulua direla, erreportaje sakonagoak irakurtzeko aukera ematen ziola... Baina jarraitu du euskara aberatsa duen testuak dituela eta kartzelan, ia euskaldunik gabe zegoela, nolabaiteko arnasmune izaten zela berarentzat. Euskal Herriarekin ia prentsa idatzi bidez mantentzen da harremana.

Blog bat ere ireki zuen argia.eus-en, eta "barrutik presoen kolektiboari egin-dako ekarpena" izan zela definitzen du berak, lagundu nahi izan baitzuen erakusten euskal preso politikoen kartzelako egunerokotasuna, bizipenak.

Bada beste harpidedun bat Zurich-en. Nekane Txapartegi. Hilabete gutxi batzuk dira harpidedun egin zela, eta bere lagun batek kontatzen digu zein emozionatuta dagoen, hamalau urtez euskal prentsarik irakurri gabe egon ondoren, ARGIA edo *Berria* bezalakoak jasotzen dituenetik. Euskal Herriarekin berriz konektatu duela dio, eta definitzen du ARGIA momentu honetan dagoenaren alternatiba komunikatibo bezala.

Badira etxean harpidedun egin eta hileroko paketeetan astekariak sartzen dizkietenak ere. Mikel Orbegoza, adibidez. Marrazkilaria bera, ziur artikulua batek baino gehiagok inspiratu duela edo eman diola informazioa. Amak hala dio.

Eta hauek adibideak bakarrik dira, harpidedun preso gehiago ere badaude; baina lerro gutxi hauetan denak aipatu ezin. Moduak asko dira presoengana iristeko, eta ekonomia behintzat ez dardila oztupo izan. ARGIA irakurri nahi duen orok du aukera horretarako. ■




Iñigo Aranbarrik
1932ko ARGIAren
egutegiaz

Iñigo Aranbarri

@inhigoaranbarri

Azpeitiko lantegiak publizitatea euskaraz egiten.



Azpeitiko dendariak publizitatea euskaraz egiten.



Horrela hasi zen Azpeitiko Marzial Uzin: sororako tresnak sortzen eta euskal prentsan publizitatea egiten.



Koldo Izagirre idazlea

“USTE DUT FENOMENO OROKORTUA DELA GOXO IDAZTEA”

Azaroan publikatu zuen lan berria, *Franco hil zuten egunak, eta Basques' Harbour-eko beste kontu asko* (Susa, 2016), nahiz ez zuen aurkezpenik egin. Bere portu partikularra itzuli da, bederatzi narrazio sendotan, urakanaren indarrez, eta zurrumbiloan eraman ditu idazkera ikurrak, lexiko zelaia eta sintaxi erraza. Jende eta gertakari errealak harroin hartu eta literatura egin du, ohi duenez.



Miel A. Elustondo

ARGAZKIA: ZALDI ERO

Franco hil zuten egunak liburuaren aurkezpenik ez eta, aldiz, elkarrizketa sorta egin duzu lan berria argitaratu zenetik. Isilean iragan nahi zenuena, bateko eta besteko hedabideetan izan zaitugu, prentsa bete orrialde.

Harrigarria egin zait, alde batetik, eta bestetik, berriz, kezkarria. Alegia, egunkariaren lehen planoan azaltzeak zer adierazten ote duen; bi orrialde –eta hiru ere!–, edukitzeak nik, edo nire liburuak. Egin ditudan elkarrizketa guztiak liburuari buruzkoak izan dira, ez idazleari buruzkoak –ohiko bizpahiru galderak izan ezik–, baina eman didaten espazioak zer pentsatua eman dit. Ez nago ados. Eskertua nago, eragina izango du salmentan, seguru asko, baina, beste alde batetik, inpudikotasun sentazioa dut. Ez da ohiko tratamendua. Nire kolektiboa, idazleena, “traizionatzen” ari naizela iruditzen zait. Badakigu idazletza gauza pertsonala dela, indibiduala dela, baina idazleari demasako tratamendua eskaintzeak kaltea ekar liezaguke. Foku azpian egoteak higatu egiten gaitu. Espero ez nuen tratamendua eman didate, egia esan.

Zure literatura lanetan inoiz ez bezala, aipu bat da atariko, hamar ilara soiletan. Bertan, idatzitakoak ipuinak direla diozu, “historia txipia esaten zaiona”, jende eta gertakari errealak dituztela oinarri, literatura erantsi diezula zuk, “haiek bizi izandakoak balio sinbolikoa har dezan”.

Aipuak, kasu honetan, badu arrazoia: ipuin guzti-guztiek daukate gertakari konkreturen bat oinarri, errealitatekoa. Nire belaunaldikoentzat aski atzemangarria da dena delako gertakariaren atzean dagoena. *Irauntza* ipuinaren atzean, esaterako, Garcia Ripaldaren hilketa dago, Donostian, Grosen. Joseba Elozegi, berriz, izen-abizenek aipatzen dut. Alegia, idatzi dudana ez da fikzio totala, hainbat zor dio gure historiari eta errealitateari. Nik horri literatura erantsi diot, haiek oinarri hartu eta mundu bat fikzionatu dut haien inguruan, neurre gisara. Francoren katxalotea, esaterako, fusilatu guztien biktima erraldoia bihurtu dut, fusilatu guztiak har ditza-keen gorputz handi arpoiz jositako bat. Hargatik aipua: gertatutakoak dira, ez dut errekreazio hutsa egin, fikzio baten barruan sartu ditut.



Irakurleak ulertuko du?

Adinaren arabera...

Garcia Ripalda, Joseba Elozegi, Francoren katxalotea Bermeon... garai bateko izen eta gertatuak.

Oso zaharra naiz, iragan mendekoa! Nire gurasoak, berriz, kasik XIX. mendekoak! Horrek asko markatzen du, nahitaez!

“Itzaletik argira egin nahi duen jendeari eskainitako omenaldia izan nahi luke liburu honek”, atariko aipuaren amaieran irakurri duguna.

Liburuaren azalean erabili dugun argazkiak *Itzala* du izena. Nik jarritako izena da, nahiz berez ez daukan izenik, eta egi-lea ere aski anonimoa den. Karabineroa ageri da azal horretan –hau da, portuan, itsas aduanan dabilen guardia zibila–, fusila bizkarrean, goizeko hamarrak eta hogeian, atzeko paretaren kontra itzala proiektatzen duela. Garai baten ezaugarria dut itzal hori, Francoren itzala da,



» “Saiatzen naiz egiturak aldatzen, puskatzen, atzera-aurrera ibiltzen, paralelotasunak eraikitzen”

» “Gaurkora ekarri dut diktaduraren itzala, hura gabe ere bestelako itzal asko dauzkagulako”

» “Politikariek ez dute bide-orririk, ez dago politika zehaztu bat euskararentzat”

» “Hizkuntza ez da sektorea, dena bere barruan hartzen duen egitura bat baizik. Euskaldunak ez gara multzo, sektore baizik”

diktadurarena da, errepresioarena da. Toki guztietan zegoen diktadura, baita portuko lanean ere, eta, horretatik, itzaletik argira nahi dutenen omenez idatzia da liburua. Logika batean, iraganean idatzi behar nukeen, “itzaletik argira nahi zutenen”, iraganeko garai eta giroan kokatuak direnez narrazio guztiak, baina gaurkora ekarri dut, orduko itzal hura gabe ere bestelako itzal asko dauzkagulako oraindik. Ez da orduan bezala, noski. Lehen, diktaduraren kontrako borroka unibokoa posible zen, etsai nagusi bat zegoen! Orain, bistan denez, etsai asko dauzkagu klase apaleko euskaldunok.

Nola egiten duzu giro eta garai hori dena jende haren barru-barrutik, barne-munitetik, fikzionatzeko?

Horixe da literatura, ezta? Gaizki ari naiz pertsonaia batzuen ahotik ari baina. Nik, pertsonaia batzuk asmatu ditut, eta haiei bizia ematen saiatu naiz. Agian, ideologizatuegiak atera zaizkit,

baina nik garai ideologizatua ezagutu nuen, eta, beharbada, ez dut zikinkeria hura nire gainetik osoro kendu. Hori izan da, hain zuzen, fikzionatzean egin nahi izan dudana: gertakariaren inguruan zegoena idatzi.

Fikzioa fikzio, nondik edaten duzu idazten duzun moduan idazteko? Ez da ohikoa gure artean zuk darabilzun sua, idazkera ikurren ausentzia, lexikoaren kolore horiek...

Ez dakit.

Manera lauagoak ohi darabiltza euskarazko idazleak...

Uste dut fenomeno orokortua dela goxo idaztea... Esperimentalismoak oso atzean geratu dira. XX. mendeko kontuak dira. Ez dut uste nik esperimentalismoak egiten dudarik, alabaina, saiatzen naiz egiturak aldatzen, puskatzen, atzera-aurrera ibiltzen, paralelotasunak eraikitzen. Hori guztiz ohikoa

da nik irakurri dudana literaturan, oso gauza arrunta. Euskarazko literaturan pertsonaia xumeak ez dira askorik azaltzen, mundu industrialaren ere ez da askorik ageri, non eta gurean, Gipuzkoan eta Bizkaian, populazioaren gehiena industriatik bizi zenean. Mundu hori ez da askorik azaldu, ez bada gatazka jakin bat tarteko izan delako. Baina, normaltasunean, ez da azaltzen. Seguru asko, langilearen bizitza ez delako, zoritxarrez, oso nobeleskoa, ez duelako sorpresa handirik, istripu larriren bat-edo ez bada, behintzat. Industria mundu hori ez da ageri; portuko lana, esaterako...

Pertsonaia singular asko dira liburuan eta, horietarik bat, argazkilaria: Rafael Artista Fotografo.

Fotografo bat baino gehiagoren batura duzu. Portuko errealtateak ikusteko handia dauka pertsonaia horren sorreran. Portu industrialaren oso leku fotogenikoa da: hango zikina, hango bidoiak,

hango bagoiak... Estetika industrial fuertea du portuak, kontraste handi-koa. Ez zen harrigarria, beraz, portua fotografoen lekua ere izatea. Pasaia-ko portuak, esaterako, prentsa korrespon- tsalak eduki zituen beti, bertako Obra Batzordeak ez zeukan fotograforik, bai- na beti zeukan enkarguren bat haien- tzat. Fotografoek kolekzio handiak osa- tu zituzten. Pasaia Antxon, momentu batean, hiru fotografo profesional ere izan ziren lau mila biztanlerentzat. Ho- rrek zer edo zer adierazten du. Orain- dik orain, fotografo horietako baten fa- miliak kristalezko bi mila negatiboren dohaintza egin dio Pasaia-ko kultur talde bati. Herri osoa ageri da bertan, gerra aurretik 80ko hamarkada arte. Fotogra- fiari dagokionez, ni neroni portuan bizi nintzen eta, gaztetxotan, aita- kamera bat eman zidan non edo nondik kontra- bandoz atera zuena, eta karrete batzuk hartu eta hara eta hona ibiltzen nintzen portuan fotografia abstraktuak eta es- perimentazioak eginez. Honenbestez, esana dago fotografoari dagokiona.

Galego giroa ere guztiz presente zure narrazioetan. *O burro ipuinean oroz gain...*

Lau barruti handi ditu Pasaia-ko, eta ho- rietarik bat da Trintxerpe, guztiz gale- goa garai batean. Oraindik galegoa en- tzuten da hango kalean, nahiz eta orain gutxiago entzuten den, orduko galegoen ondorengoak galegoak baino euskal he- rritarragoak direlako. Guk “egun on” esaten genuenean, haiek “eu non” uler- tzen zuten, hau da, “ni ez” edo “nik ez”, eta “eu tampoco” zen ohiko erantzua... euskaldunen artean! Galego izaer- ak Trintxerpen ez ezik portuko inguru osoan zeukan indarra adierazten du ho- rrek. Komunitate pobrea zen galegoena, lanik gogorrenak egitera etorriak ziren, Ternuara bakailaotara joan ohi zirenak... Askok sufritutako jendea, galegoak. Bes- talde, Errepublikara garaian, hainbat hila- betean greban egon eta manifestazioan irten ziren galegoak portutik Donostia aldera. Bada, Ategorrietan zain zituz- ten guardia zibilak, eta zazpi hildako, berrogei zauritu izan ziren. Hurrengo egunean, orduko egunkari *El Día*-ren titularrak: “*Una muchedumbre con fines inquietantes se acercaba a la capital...*”. Sarraskia zurituz, alegia! Guk ezagutu genuen galegoen mundua oso erakarga- rria zen, boxeo kluba ere bazeukan eta, bestalde, Trintxerpeko futbol taldean

IRAKURLEARENA

Desagertzeko arriskuan dagoen espe- zieren bateko idazlea da Koldo Izagi- rre Urreaga (Pasaia, 1953), alderantzira idazten dutenen kide. “Euskararen sin- taxia ere halakoxea da, eta hura zuzen- du nahian nabil”, dio. *Franco hil zuten egunak, eta Basques’ Harbour*-eko beste kontu asko, liburu berria dakarrela ere, non dago *basques’ harbour* eta, oroz gain, *Egarri egunak Portualdean* dakar- tza. Sahara, Joseba Elosegia, Francok fusilatutako, manifestazioan Donostiako Grosen 1975eko urriaren 31n balaz hil- dako Jesus Mari Garcia Ripalda, propa- ganda klandestinoa zabaltzen duen neska gaztea, Francoren heriotzaren osteko igandean jokatzeari uko egiten dion futbolaria –dolua gorde beharra izan ez dezan–, “eta beste kontu asko”, azpitu- tulan idazten asmatu duenez.

Franco hil zuten egunak honetan, aro jakin bateko giro-garaia- k literaturiza- tu ditu Izagirrek, idazkera peko- z gora jarri- rik, ikurren gainetik jauzi eginik, pertsonaia bata eta bestea idazlearen lumari gailentzen zaizkiolarik, etorri handiko uholean, lexikoa aberats, sin- taxi landu, erritmoa indartsu.

Finean, irakurle literatura zale maku- rrak behin eta berriz eta askotan iraku- rri beharko dituen orrialdeak, Izagirrek ez bezala behin eta berriz eta aunitze- tan irakurriko ditugunak, egileak ne- kez itzuliko baita orri engoiti- k zaharrotara. “Liburu bat publikatutakoan izan nezakeen txarrena da hura berriz ira- kurtzea. Ahaztu egiten dut berehala. Oraintxe, ez nikizuke emango *Franco hil zuten egunak* liburu- ko narrazioen ti- tuluak. Ez naiz gauza. Ahaztuta daukat liburu- ja da”.

Irakurleak ez bezala.

jokatutakoa naiz. Askok zor diot Trintxer- peri. Normala liburuan agertzea.

Jakin dugu norentzat idazten duzun hain alderantzira: irakurle kultu, umoredun eta literaturazalea duzu gogoan.

Beroarena kendu behar zaio guztiari. Doi bat kultu, doi bat umoredun, doi bat literaturazalea.

Hori da gure maila?

Ni neroni ere hala naiz: doi bat.

XX. mende amaiera literaturara ekarri nahi duzula irakurri genuen *Berria*-ren azalean...

Ez neukan liburu hau idazteko asmorik, 1975etik aurrerako ipuinak egin nahi nituen, ez hauek, baina idazten hasi eta konturatu nintzen hantxe zegoela beti Francoren irudia, eta aurrera egin nuen. XX. mende amaiera literaturara ekarri nahi dudala esatea ere! Zer esaten du- dan ere ez naiz konturatzen askotan!

Ez zara hitzaldiak egin zaharra Durango-ko Plateruenan eta Bilbon Euskaltzain- diaren egoitzan, Bilbo Zaharra euskalte- giak antolatutako. Euskara izan duzu gai bietan ere. Bigarren, “Euskara aka- batzeko euskal metodo batzuk” zenuen zure berbaldiaren izenburu.

Dispersio handi batean gaudela pentsa- tzen dut, eta indarririk gabe. Ez naiz eus- kaldun bezala erre- presentatua sentitzen inon. Hori da gure patua. Politikari guz- tiak beren alderdikoak dira lehenik, eta, gero, euskaldunak dira. Gure hizkuntza egoera onean balego ez litzateke proble- ma izango, baina problema da politika- riek gure hizkuntzaren diglosia bider bi, gutxienez, erakusten dutela. Aniztua. Ez dira gai euskarazko diskurtso bat joste- ko. Euskaratik sortutako hizkera politi- korik ez dago, dena da itzulpena, dena da gaztelaniazko terminoen egokitzea. Hori, hala ere, axalekoa da, funtsean ez dute bide- orririk, ez dago politika zehaz- tu bat euskararentzat. Izatekotan, euska- ra arazo sektoriala dute, lehen emaku- mea edo langilea arazo sektorial zituzten bezala. Baina hizkuntza ez da sektorea, dena bere barruan hartzen duen egitu- ra bat baizik. Hori da gure arazo nagus- ia, euskaldunak ez garela multzo, baizik sektore bat, eta, hori horrela, ezin dugu- la elebitasun faltsu hau gainditu.

Autopsiarako frogak (Susa, 2010) aurkez- tu zenuen garaian ere horretan zinen...

Areagotu egin dira frogak. Nazkatu egin naiz txatalak biltzen, surrealismoaren mailakoa da afera. Gasteizen gertatu zena, azokan porruak salgai jarri, “porruak” zioen txarteltxoarekin, eta udaltzainaren debekua jaso zuenarena bezala! Umorez- ko film batean azaldu eta jendeak barre egingo luke erridikulizazio modu bat de- lakoan. Baina erre- alitatean gertatu da! Horretaraino iritsi gara. Bitartean, ez da ezer gertatzen. Politika linguistikoak ondo daude, oso egokiak dira, aurrera goaz... ■



1925-1936

MODERNITATE BAKAN BAT

"ARTE BERRIA",
DONOSTIAREN INGURUAN

2016ko AZAROAREN 5ETIK
2017ko OTSAILAREN 5ERA

STM

San Telmo Museoa



donostiakultura.com



ELKARRIZKETAK
CONVERSACIONES
DSS2016.EU

#STMmodernitatea

San Telmo Museoa. Zuloaga Plaza, 1.
20003 Donostia | T. 943 481 580
www.santelmomuseoa.eus

Erakunde babesleak

Patrono pribatuak

Enpresa ongileak

Enpresa laguntzaileak



EL DIARIO VASCO

berria



GARA

naiz:

jargia





RAFAEL RUIZ BALERDI



Xabier Gantzarain

www.argia.eus/artea

KONPOSIZIOA-91 XI. 1991

Oliao mihise gainean. 165 x 212 cm

Datorren martxoan beteko dira 25 urte Rafael Ruiz Balerdi hil zela (Donostia, 1934ko maiatzaren 5a-Alacant, 1992ko martxoaren 11). Azkenerraino jarraitu zuen pintatzen.

Donostiako Arte eta Lanbide Eskolan egin zituen pintura ikasketak. Madrilerara joan zen gero. 1957an Artista Gazteen Lehiaketa irabazi zuen. Urte haietan finkatu zen bere estiloa, abs-

trakzio lirikotik informalismora doana. GAUR taldeko kide izan zen 60ko hamarkadan. Neurri handi eta kolore biziko koadro ederrak egin zituen batetik bat. ■

ARGIA 2017ko egutegia

Egunero etxe, elkarte eta eskoletako hormak edukiz janzteko.

***Eskatu orain 2017ko
ARGIAren egutegia.***

Buruketak

Galdetzea libre

Atzokoak gaur

Santuak

Euskal izendegia

Eguzkia, ilargia eta mareak

Egutegia

9€

50€

Egurrezko
taula
egutegia
opari

☎ 943 371 545

www.argia.eus/denda

denda@argia.eus



KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Udazkenik gabeko udaberria



Amaia Serrano Mariezkurrena



Udaberririk ankerrena

UNAI ITURRIAGA

Ilustratzailea: Alex Sanvi
Elkar, 2011

Durangoko Azoka iragana den honetan, Durangori begiratzeko beste modu bat eskaintzen digu *Udaberririk ankerrena* (2011) komikiak. Bi-biek kultur mailatik egiten diote ekarpena (euskal) herriari, baina bigarrenak haren historia iluna dakar argitara.

Gernikaren bonbardaketak hainbat adierazpen artistikoren bidez hartu dituen esanahi lokal zein globalen ostean, suntsituak izan ziren gainerako herri euskaldunek bere espazioa galdegiten dute. Zentzu horretan, obra honek "komiki historiko" izateko ezaugarriak betetzen ditu: istorioa bera eratu aurretiko dokumentazio-lan baten emaitza izatea (fikzioa gailentzen den arren), irakurlea testuinguru egokian kokatzeko *Durango 1936* Kultur Elkartek egindako aitzinsolas historikoa, oinarri faktikoa duten gertaeren/pertsonaien agerpena, lekukotza bat emateko nahia, genero literarioen eta diziplinen arteko mugak apurtzea, eta abar. Horrez gain, halako lanetan saihestea zaila izaten den manikeismotik urruntzeko ahalegina ere ikusten da, eta eginkizun horretan agertzen zaizkigu emakumezkoak: ez soilik narratzailea den Mari, zeinak narrazioa lehen pertsonatik kontatzen digun, baita izeko Dolores

ere, zeinaren onberatasunak etxean faxisten aldeko apaiz bat ezkutatzera daraman.

Historia ezaguna da, alde horretatik badakigu zer espero dezakegun eta, egia zor, iragan

hurbila ezagutzen duenari bilbea bakunegi gerta dakioko. Dena den, badira sorpresak ere, kontrasteak eta bidaia (literalak zein metaforikoak), kontaketa aberasten dutenak. Irakurleak *Udaberririk ankerrena* komikian aurkituko du musika alaia gerra betean, zahartzarora eta haurtzarora elkarren eskutik, gorrotoa eta maitasuna elkarri begira, zentzugabekeria eta arrazionaltasuna bata besteari tiraka. Paradoxek, gainera, elkartu egiten dituzte historiako ibilbide ezberdinak: aitona Eleuteriok Kubako Independentzia Gerran espainiar armada kolonialean parte hartu zuen (haren lotsagarri), eta Martin bi-lobak Habana itsasontzia izango du bizirau-penerako ihesbide.

Gerraren eromena ere presente da, nagusiki Don Fernandorengan pertsonifikaturik. Orobat ageri da kaosa, noiz eta aitona errepublikazalea, erreketengandik ihesi doala, Intxortako gudari batek hiltzen duen. Heriotza horrek egoeraren gordintasuna eta krudeltasuna areagotzen ditu.

Testuaren eta irudien arteko harmonia handia da. Horrek ez du eragozten, edonola ere, une batzuetan bata ala bestea gailentzea, bilatzen den erantzunaren arabera. Mutua da bonbardaketaren unea bera, baina irakurleari iltzaturik geratzen zaizkio hegazkinen eta bonben durundia. Aldiz, bada jolas narratiborik ere, Mari eta aitona berriz elkar aurkitzen dutenean askatzen dena, esaterako.

Horrenbestez, gure historiaren zati batera gerturatzeko proposamen interesgarria da komiki hau, batez ere (formatuari eta istorioari begira) belausaldi berrientzat. ■



Unai Iturriaga (*Durango*, 1974) bertsolaria, idazlea eta ilustratzailea.

» TELEGRAMA

Abenduaren 23an, 18:00etan, Aviron Bayonnais taldearen errugbi partidaren kariatara Baionako **Jean Dager zelaian Olentzero** ekitaldia izanen da *STOP* Donostiako Tabakalerak **Costa-Gavras** eta **Imanol Uribe** zinemagileen filmen zikloa eskainiko du *Zinema Solasaldiak* ekimenaren kariatara abenduaren 10etik otsailera bitartean *STOP* Abendutik otsailera bitartean *Uhartearen altxorra* erakusketa irekita dago **Bilboko Azkuna zentroan**: haur eta gazteen ipuinetako ilustrazioak ditu ardatz. Idazle, ilustratzaile eta ipuin kontalariekin tailerrak egiteko aukera ere zabalik dago *STOP*

» KONTZERTUA



Montse Auzmendi

La Bayadère

BALLET NAZIONAL ERRUSIARRA

Zuzendaria: Sergey Radchenko.
Konpositorea: Léon Minkus.
Koreografoa: Marius Petipa.
Bilboko Euskalduna Jauregian.
Azaroaren 27an.

Azkenaldi honetan ohikoak dira apustu apurtzaileak, klasikoan bertsio berriak, modernitatea nonahi, baina aitortu behar dugu berrikuntza ahaltsu horien artean bake psikologiko estilistiko behar dugula noizean behin, eta holako momentu terapeutikoa bilatu genuen Ballet Nazional Errusiarraren emanaldian.

Titulu klasiko bat, Léon Minkusen *La Bayadère*, Marius Petipa handiaren koreografia eta XIX. mendearen *mise en scène* hiperklasikoa nahikoak izan ziren saio dotore eta lasaigarria burutzeko. Oso gustagarria.

Egia da Sergey Radchenkok zuzentzen duen talde hau ez dagoela bere une onenean, nabariak dira gabezi ekonomikoak (jantziak, dekoratuetan, eta abar), baina horren guztiaren gainetik benetako balletaren magia inguruan eta airean zebilen, obrak irauten duen ordu eta erdi horretan giro erromantiko, dekadente eta polit horretan murgiltzeko parada izan genuen, aspaldiko bainuetxe batean egongo bagina bezala. Nahikoa, ikuskizun hau gomendatzeko.

1877. urtean estreinatutako obra eder honek denetik dauka erakargarri izateko. Amodioa, pasioa, heriotza, justizia, etika miresgarria... dena aurki dezakegu. Bestalde, Marius Petiparen koreografia elegantea oso ondo egokitu zen istorio exotiko honetara, XIX. mendeko India inperialean kokatua.

Ballet Nazional Errusiarraren dantzariak, teknikoki oso trebeak, dantza adierazkorra eskaini zuten, mistikoa esango nuke, oso aproposa entzuleak beste garai batera eramateko. Esan bezala, terapeutikoa. ■



Gazi-gozaak...

PUNTUAKETA

4.000 lagunetik gora bildu ziren Bilboko Arenan abenduaren 17an. Hona hemen finalean aritu ziren bertsolariak, eta bakoitzak jasotako puntuazioa (kontuan izan lehen biek buruz-burukoa ere jokatu zutela, beraz, besteek baino bertso gehiago kantatuz):

- Etxahun Lekue (930 puntu)
- Xabat Gallettebeitia (893,5)
 - Jone Uria (549,5)
 - Onintza Enbeita (538)
- Ibon Ajuriagojeaskoa (535,5)
 - Nerea Ibarzabal (534)
 - Miren Amuriza (531,5)
 - Beñat Ugartetxea (510,5)



Miren Ibarluzea Santisteban

@mibarluza



ARITZ LOIOLA / ARGAKZI PRESS

Non jarriko gara? Gradetan, erdialdean? Baimenduak bakarrik? Tirozu, laster palkoa handiagoa izango da entzule arruntentzako eremua baino... Albo batera? Esan dut nik ba hobe zela ordu laurden lehenago etortzea...

“Lehenengo muxua, lehenengo esaldia, lehenengo hilekoa, lehenengo bertso afaria, Miribillako lehenengo oholtza handia, esperientziaren faltan ausardia, ez dezazuen ahaztu gure lehenengo aldia (Nerea Ibarzabalen hasierako agurra. Eta ez, ez dugu ahaztuko!)”.

Handira: Gerra Zibileko hildakoen aztarnategian Onintza eta Xabat. “Bidal, itzali, kixkali, estali”. Berba erri-madun guztiak aditz izateak eragingo ote du? “Beta” errima? Meh! “Kolpeta”? Hiztegia badator? Beñat eta Ibon. Pankak eta baloiak. Kale. Pena. Miren eta Etxahun. Batua eta bizkaiera nahastea zigortuko diete? Nerea eta Jone. Nerea, freskuraz! Ondo, Jone, zer da ba ona bertso-puntuak josten...

Txikira: Xabat eta Beñat. Urrezko ezteiak, hegaldi pribatua, Bilbo, lañoa, errezoa... zenbat helduleku... denak aipatu behar dituzte? Pilotuak bizarra duela eta... “San Pedro ez da izango, ezta”? Beñaten barruko plazagizona aterata: “haginak klaka-klaka” eta “abione-

taren zarata”. Hirugarrenean abionetak eta bertsoak behera egin du, ba!

Puntuari erantzuten nor ikusi du-dan ondoen? Ibon eta Miren.

Hamarrekora: Onintza eta Ugartetxea korrikaren lekukoarekin. Ez zaizu iruditu gaitik aterata bota diola ileordearena? Xabat eta Ibon, ondo, akats barik, nabarmendu barik. Gazi-goza. Miren eta Nerea Bolibiara doaz bisitan. “Bikotea garela esango duzu, ezta?” Ederra! Zer lanketa egin duten neskak gaien tratamendurako ere, ezta? Nereak ere ona, ona, baina... Ai! Trabatatu egin da... aaaai! Mihia trabatatu zaio, ez burua! “Gora *Bolibia*!” Hori da hori freskotatuna, hori da hori irribarrea, geratuta ere bertsoaldi ederra! Etxahun eta Jone erditze-ikastaroan. “Damutu, agurtu, apurtu, ezagutu, bildurdu”... Etxahun! Bazara, ba, aditzak baino gehiago erri-matzeko gai! Ondo Jone erantzuten, ironiaz: “erditze natural bat baino ez zait falta!” (...) “prest egon gabe ere etorriko da ta”...

Bakarka: Komunean egon naiz, zelan egon da Onintza? Ondo, akats barik, Ondarroako etxegabetuei kantatu die. Gai zaila da Xabatena? Ekarri du berera, baina... grrr... zer da ba “malkotan *blaiz*”? Beñatek segurura jo du, ala?

Berera ekarri du: baserria eta umorea. Zergatik luzatu? Zenbat errima ote dira nahiko bakarkakoan? Ez zaizula gustatu nola jorratu duen Ibonek gaia? A, ba niri bai. Miren: ondo, “lehen amak zaintzen ninduen, neskabila guri-guri”, ondo errimak, “urduri, mugi”... “urduri”, poto?! Bai! Joder! Niri gustatu zaizkit poto eta guzti, ba. Zuri? *México lindo y querido* doinua... moldatua da? Watssapa joka. Bertso school watssap taldea: 110 mezu! Errimak botatzen ez dabil-tza, ba! Asko kentzen du potoak? “Hara-ko hura ez bazara”... Ixo! Entzun: “astora, gora, aproba, deitora”... Zer da “*deitora*”? Isilduko zara? Entzun Etxahun: “herio-ren aldetik”? Irrist egin dio, ezta?

Nork egingo du aurrera? Inguruan ez da inor ezer argi esateko gai. Luze dabil hau jotzen. Luzeegi. Kanpora? Erretze-ra? Seiko txapelketa ez ote da hobe?


Xabat eta Etxahun. Xabatek potoa! Eta... azkenean... “Lekuek txapela, txapelak bere lekue” (pankartak iragarri moduan). Zorionak Etxahun! Esperientziak jantzi dizu txapela.

Niri? Ba... luzeegi jo duela, irudipen gazi-gozoz ateratu naiz. Arriaga edo Euskaldunako final haietaz akordatzeko zara? Ez al gara zahartzen ari?

Kronika osorik: argia.eus-en. ■

Gurutzegrama

Gaia: Pirinioetako mendiak



Ezker-eskuin:


1. Iratiko oihanaren ingurunean dagoen mendi hau Nafarroa Behereko garaiena da. 1.466 metroko altuera du eta Euskal Herrian dugun nekropoli garrantzitsuenetakoa du, Ilarritako harrespilak. Su arma baten kanoiaren diametro. Abereak jateko aska. 2. Irakitera behartu. Mailaz igo. 3. Oinplanoak. Nafarroako mendi hau bere 2.044 metroekin Euskal Herriko hirugarren mendirik altuena da. 4. Esateko era. Urtearen seigarren hila. 5. Barazki hostotsua. Kontsonante errepikatuta. 6. Amatatua. 7. Oihu ozen. Txikerrak. 8. Zuberoa eta Nafarroa arteko mendi honen tontorrera iristeko (1.877 metro) Erraitzeko lepotik, Belagoatik, Santa Grazitik zein Ehujarreko arrolatik abiatu gintezke. Porlan. 9. Eroan. Grina. Eskala laguntzaila. 10. Zaletasun atzizkia. Gizakiaren gorputza estaltzen duen mintz. Izerdia bota.

Goitik behera:

1. Oinarri, euskarri. Eraikin mota. 2. Kriptona. Kolore hori. 3. Bokal errepikatua. Boli Kosta eta Ghanadako talde etnikoa. 4. Berkelioa. Memoria informatikoa. 5. Omen. Kazakhstan eta Uzbekistan arteko laku gazia. 6. Neptunioa. Mugetako bulegoa. 7. ... Kale, lurretako antzerki jaialdia. 8. Altzari apalduna. 9. Zeregina. 10. Hankaren atal. 11. Lapurdiko udalerria. 12. **Izaba eta Uztarroze udalerrietan dagoen mendia, Nafarroa eta Zuberoa artean. Haren tontorra 1.982 metrora dago.** 13. Gaztetasuna galdu duena. 14. Ahuntzaren ar. 15. Goru. 16. Pausaldi (alderantziz). 17. Zilarra. Sarri entzuten den esaldi. 18. ... hartu, lo egin. Zakur. 19. Zehea. Neodimioa. 20. Kalika jokoko makila. Bi erromatar zenbakiz. 21. Erakunde belikoa. Utikan! 22. Ausardiak bete.

Betegrama


Taulan hutsik agertzen diren laukiak osatu zeharretara eta goitik behera, hitz guztiak irakurri ahal izateko.




5x5

Zeharretara eta goitik behera, hitz bera.

1. Aztertu.
2. Letra grekoak.
3. Haitzuloetako sarrera estua.
4. Tentel, motel.
5. Uko egin.



Ebazpenak



5XS3:
1. Miatu
2. Iotak
3. Ataka
4. Taket
5. Ukatu

Iskender-estkum: 1. Okabe, Kalibre, Otalako.
2. Irakinaraz, Goratu 3. Plantak, Arlas. 4. Esacera,
Ekaina 5. Aza, Rort 6. Itzalla 7. Alarau, Txiklak
8. Lakora, Zementu 9. Eraman, Lera, Nonius 10. Tun,
Larruazal, Izerditu
Gotik behe: 1. Um, Txalec 2. Kt. Laru. 3. Aa, Akan.
4. Bk, Rom. 5. Eij, Aral. 6. Np, Aduna. 7. Kalez. 8. Arasa.
9. Lana 10. Izter. 11. Biarritz 12. Kartxela 13. Zimel.
14. Aker. 15. Lima 16. lat 17. Ag. Eskune. 18. Loak, Or
19. Arta, Nd. 20. Kali, Il. 21. Otan, Ut 22. Ausarditsu.

Aitana Oltra. Zientzialaria



Aitana Oltraren iritziz, zientzialariek ez ezik, herritar arruntek ere espezie arrotz inbaditzaileen hedapena neurtu dezakete, herritar zientzia deritzona eginez. Are gehiago, herritarrek politika publikoetan eragin dezaketela uste du Oltrak. Urteak daramatza CSICen barruko Blaneseko Ikerketa Aurreratuen Zentroan (CEAB) tigre eltxoen ezaugarriak eta hedapena ikertzen. Mosquito Alert proiektuan zientzia eta parte-hartzea uztartu nahi dituzte.

“Beti egon da herritar zientzia, baina iraultza handia dago sakelakoei eta interneti esker”



Jabi Zabala

@sarean

ARGAZKIAK: ARITZ LOIOLA

Jendetzaren jakituria

“XX. mende hasieran, abere azoka batean behi baten pisua asmatzeko erronka bota zuen saltzaile batek. Behiaren pisua inork asmatu ez bazuen ere, antropologo bat konturatu zen egindako apustu guztien batez bestekoa asko hurbiltzen zela behiaren egiazko pisura. Hortik atera zen jendetzaren jakituriaren teoria, herritar zientzian maiz aplikatzen dena. Esaterako Moonzoo proiektuan, NASAK denen esku jarri zituen ilargiaren argazki batzuk eta herritarrei eskatu zien kraterrak identifikatzeko. Jende askok eginez gero, emaitza errealitatera hurbilduko da”.

Zer da herritar zientzia?

Herritarrek era aktiboan esku hartzen duten zientzia. Herritarrak sentsoz edo datu biltzaile moduan aritu daitezke. Sentsoz moduan esku hartze pasiboa goa da, adibidez, hirian zarata neurtzeko helburu hutsa duen aplikazio baten kasuan, baina gure kasuan eltxo batzuen bila zoaz eta aurretiazko jakintza behar duzu, eltxoa ezagutzeko gaitasuna, eta ondoren bila abiatuko zara.

Smartphoneei esker egin daiteke herritar zientzia egun.

Beti egon izan da herritar zientzia, baina iraultza handia dago sakelakoei eta interneti esker. Kamera, audioa, koka-pena, azelerometroa... Oso baliagarriak dira. Badira beste herritar zientziako proiektu batzuk “zuk zeuk egin” filosofiarekin. Kit bat muntatu eta meteorologia estazioa ezar dezakezu etxean.

Eta zuek tigre eltxoaren kasurako egokitu duzue herritar zientzia. Zer da tigre eltxoa? 2004an Espainiara heldutako espezie inbaditzailea da *Aedes albopictus*. Jato-

rriz Asiako eki-hegoaldekoa da, baina lurralde berrietara zabaltzeko gaitasun handia du eta Mediterraneoko kostalde osoa hartua du dagoeneko. Hemen go eltxoak ez bezala, egunez ibiltzen da ziztadak ematen, ziztada ugari eta mingarriak ematen ditu eta hiriguneak atsegin ditu. Bizi kalitatea urratzen du eta gaixotasun batzuen hedapenerako bektorea izan daiteke, denge edo chikungunya sukarra kasu.

Gaixotasun horiek ezin dira zabaltu eltxoa ez badago?

Ez. Eltxoen bidez zabaltzen direnak arbobirusak dira: eltxoa ez badago, gaixotasuna ez da hedatuko. Biak behar dira, gaixotasuna eta bektorea, horregatik da garrantzitsua eltxoak kontrolatzea.

Mugatu dezakegu eltxoaren zabalkundea?

Bai, beraren hedapenerako erraztasunak murriztuz. Ur geldia dagoen gunetan erruten dute; zoritxarrez, oso ontzi txikietan ere ugaltu daitezke, eta horrelakoak ugari dira lorategi, parke eta patioetan.



Zorionez, herritarrek eta administrazioak jakitun egonez gero, horrelako gu-
neak eta putzuak kendu ditzakete.

Eta Mosquito Alert aplikazioak datu ho- riek bidaltzea ahalbidetzen du?

Bi gauza bilatzen ditugu: errute gu-
neak eta helduak, eta kokapenaz gain argaz-
kia bidal daiteke. Argazkirik ez duten da-
tuak estatistika moduan tratatzen ditu-
gu, eta argazkia dutenek balio handiagoa
dute. Sinesgarritasuna da herritar zien-
tziak duen arazoetako bat, ez jendeak
gezurra esango duelako, datuak oker
egon daitezkeelako baino. Estatistikaren
bidez emango diegu datu horiei fidaga-
rritasuna, batez bestekoa kalkulatu.

Eltxoaren zabalkundeaz datuak emateaz gain, herritarrek ezin dute beste ezer egin?

Bai, herritar zientzia kudeaketan inte-
gratu. Ingurugiroaren kudeaketan esku-
menik ez duten ikerketa gu-
neek bultzatu dute proiektu hau, baina hasieratik
gure asmoa izan da eragin dezaketen
administrazioei helaraztea datuok. Uda-

lak, autonomia erkidegoak, administra-
zioentzat lan egiten duten enpresak...
Eskumenak banatuta daude eta ez da
erraza kontua. Bizpahiru udal handire-
kin lortu dugu koordinazioa. Bartzelo-
nako Udalean, kasu, osasun publikoa-
ren agentziak datuen egiaztatze taldean
parte hartzen du.

Izurriteen datuak hedatzeak, datuak za- baltzeak... Administrazioen mesfidantza sor dezake.

Beldurra ulergarria da, dena ustez kon-
trolpean zutela Pandoraren kutxa zabal-
du genuen neurri batean, datuak mapa
publikoetan zeuden arren. Saiatu gara
mezu positiboa sortzen, ez gaude ad-
ministrazioa izorratzeko, batera borro-
katzeko baino. Udal batzuek ukatu egin
zuten hasieran eltxoaren presentzia,
batez ere turismo handiko gu-
neetan, baina jendeak argiro ikusten duen hori
ukatzek are gehiago kaltetzen zuen
euren irudia. Proiektuaren webgunean
(mosquitoalert.com) datuak jendearen
esku jartzeaz gain, babes neurriak ere
eskaintzen ditugu.

Haurrekin ikasgeletan arrakastaz egin duzue herritar zientzia esperientzia el- txoarekin. Nola?


Saiatu gara metodo zientifikoa lan tres-
na bezala garatzen eskolan, aplikazioak
lagunduta, baina ikasleei galderak egin-
da. Adibidez: badira nire herrian tigre el-
txoak hazten diren toki asko? Galderari
erantzuteko lan metodoa garatu eta datu
bilketa egin behar izan dute. Guk tresnak
eman dizkiegu, aplikazioa eta datuen
bilketa behar bezala egiteko jakintza.
Profesionalek bezala egiten ikasten ba-
dute, bihar-etzi oso baliagarria izango
zaie pentsamolde hori menperatzea.

Hemen liztor asiarrak dugu, baita landare inbaditzaile batzuk ere. Antzeko proiektu- ak daude horien inguruan?

Euskal Herrian EEIKO dago, enpresa
pribatu batek sustatua, batez ere panpa-
lezkarekin eta beste landare batzuekin
ari dena lanean; liztor asiarraren ingu-
ruan VespAPP dago Balearretan, baina
egokitu liteke honako; Natusfera sortu
du CREA zentroak... Zerrenda amaie-
zina da. ■



ETArentzat armak erosteko crowdfundinga abiatu dute



Jostunen elkartek kezkatuta agertu dira lanbidearen izen ona ETaren armagabetzearekin nahastu izanagatik.

Arma suntsiketari Espainiak eta Frantziak ipintzen dizkieten trabak ikusita, kontrako bidea hartzea erabaki du bake prozesua azkartu nahi duen herritar talde anonimo batek. “Ea horrela asmatzen dugun”, azaldu dute Beranduegiri eskusiban igorritako agirian.

Armak erosteko dirua biltzeko kontu korrante bat ireki dute, baina haren zenbakia sekretupean gordeko dute, “PPko horiekin ez dago-eta seguru ego-terik”. Jakitun dira horrek zaildu egingo duela ekarpen ekonomikoak egitea, “baina Euskal Herriak askotan erakutsi du badakiela irudimenez eta kemenez arazoak gaingitzen”, adierazi eta lasai-lasai geratu dira.

Esplikatu dutenez, arma berriak jaso bezain laster ETak zigilatu egingo ditu, noizbait suntsitu ahal izateko: “Jokabide logikoena da, gauden-gaudenean”. “Herrriaren ekonomia berpizteko ona izango delakoan” pozik agertu dira Eibarren. Bestalde, “Messi erosteko aukera emango digu”, adierazi du armak saltzen dituen Realeko presidente Jokin Aperribayk.


Bestalde, Luhusoko atxilotetengatik erreakzio oldeak ez du etenik. AEBetik Charlton Heston aktoreak poza agertu du. “Armak suntsitu nahi dituztenak biolentoak dira eta espetxea da haien-tzat leku egokiena”, esan du gutxi gora-behera Erriflearen Lagunak elkarteko kideak.

SAREAN ARRANTZATUA

Badator Olentzerooooooooooooo



Ezta mugitu ere!



Gora España goool!



Espainiako futbol selekzioak, La Rojak, San Mames estadioan jokatuko ditu 2020ko Eurokopako partidak. Bilbo berriz ere munduko maparen erdigunean! Pozik zorutzen alkatea, hotelak, tabernariak, bonbodun Manolo eta milaka herritar, orain arte musua gorritzen zitzaientzen intimitatean Espainiaren gol bat ospatzen zuten aldiro, eta 2020an, Bilbo osoa gorri-gorri, disimuluan pasako direnak gol bat ospatzen duten aldiro.

EH Bilduk prentsa-oharra plazaratu du: “Guk Espainia vs Euskadi bat nahi dugu, baina ezinezkoa bada, ba hori, ahal dela Espainiaren ereserkia ez dezatela oso altu jarri, partida orduan lo egongo gara-eta”. “Aibalaostia pues, merezi duen bolumenean jarriko dute ereserkia. Bas-koak gara, Chiclanatik ere entzun behar gaituzte!” erantzun die gaztelania jatorrean zortzi abizen supereuskaldunak dituen Karra Elejalde kosmopolitak.

*Kontatzen
ez dena
ez da*

4. argitaraldia

BIZI BARATZEA

garaian garaikoa garaiz.

Jakoba Errekondo

Zure baratzea sortzeko, moldatzeko eta eusteko behar duzun liburua



Eskatu zure liburua

☎ 943 371 545

www.argia.eus/denda

denda@argia.eus

23 €

19,50 €

harpideentzat

AURKEZPEN-SOLASALDIAK HERRIZ HERRI

Antolatu zure herrian

Jar zaitez gurekin harremanetan eta behar duzun informazioa eskuratuko duzu:

sustapena@argia.eus · ☎ 943 371 545

 **ARGIA**
argia.eus

**BIZI
BARATZEA**
www.bizibaratzea.eus

184 orrialde (21,5x25 cm)